

LABAYRU IKASTEGIA



Mikel Zarate

**Bilbo irribarrez**

Mikel Zarate (Lezama, 1933-1979), literatur sorkuntzan nahiz euskeraren irakaskuntzarako materialginan, idazle eta egile oparoa dogu. Sorkuntzan genero guztiak landu ditu, ipuinak, olerkia, saioa eta nobela. Horrez gainera, euskalgintzan eragile handia izan zan.

*Bilbo irribarrez* ipuin-liburua da. Barre eragiteko helburuagaz idatzitako ipuinen bilduma bat da, Bilbon kokatua, euskal umore bilbotarra sortu guran egindakoa. Berez, euskera ikasten ebizan ikasleei irakurgai erraz-atseginak eskuetartzeko eta hutsune hori beteteko asmatuta dago.

Edizino honetara marrazki barriakaz horniduta dakargu, baina hasierako asmoari erantzuten deutso orain be. Irakurleak umorezko testu laburrak, esanguratsuak, errazak aurkituko ditu, bilbotarren eta Bizkaiko euskaldunen topikoakaz jantzita.

MIKEL ZARATE

*Bilbo irribarrez*

MIKEL ZARATE

**BILBO IRRIBARREZ**

Labayru Ikastegia  
Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa

Bilbao  
2008



## AURKIBIDEA

<i>Bilbori barre eragin guraz. Adolfo Arejita</i> .....	9
<i>Hamaika barre. Jesus Eguzkitza Eguzki</i> .....	13
BILBO IRRIBARREZ	
Lehenengo irribarrea .....	19
Idazle txarrak errekarra!.....	22
Esne bateatua .....	23
Adierazkortasunaren munduan .....	30
“Munduko surren surrik surrena” .....	32
“Hablar hablo poco, pero...” .....	35
<i>On egin jantokian</i> .....	36
Ostrazale amorratua .....	39
Etxe handiagoak behar dira Bilbon .....	40
“Kokoloori!” .....	43
Alperrik da zarpil makilatua.....	44
Emakumeen udaldiko ardurak .....	47
Gora ta gora .....	49
Txikito baten balioa.....	50
Beste lekuren baten .....	52
Bilboko alkate izateko aukera .....	53
Gorreria.....	55
Bilbo euritan.....	56
“Gaur egun ona, e?” .....	58
Abade frantses baten sermoia.....	62
Batzar Nagusia.....	63
Xabier Lauburu.....	65
Mutil bat ala neska bat?.....	66
Semaforoen legea .....	70
Kutsadura kutsaduraren gainean .....	71
Neskatila zuhurra.....	73
Ondo bai baina... ..	75

Bestelan ondo baina, ez? .....	77
Txuleta handia eta txikia .....	79
Gose urteak .....	80
Adan Aurpegi Adarraga .....	81
Koadru abstraktoak .....	85
Gauza barriak eta onak .....	86
Txaloak jo beharra .....	87
Kotxe barria .....	89
Hitz jokoen indarra .....	91
Odolosteak ordeaz .....	93
Berbako gizon zintzoa .....	95
Gitarrista barri bat.....	96
Aingeruak legez .....	97
Zahartzaroko bakartadea.....	98
Egia hutsa! .....	100

## BILBORI BARRE ERAGIN GURAZ

Aurkeztera gatozan kontu barregarrien bildumatxo hau, Mikel Zaretek *Bilbo irribarrez* titulua ipini eutsana, 1980an argitaratu zuen “Bizkargi” argitaletxearen eskutik Bilbon, egilea hil eta hurrengo urtean.

Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialak, demokrazia heldu aurretik martxan ipini eban euskerazko adarra Jabier Uriarte irakasle jaunaren ardurapean, eta euskereak zelanbaiteko ofizialtasun statusa irakaskuntzan hartzeak beragaz ekarri behar ziren ikas programa finkatu eta ikas materialak sortu beharra.

Uneko premineak eraginda sortu eta garatu zuen *Euskera bizitiki* metodoa, Jesus Eguzkitza eta Jabier Uriarteren ekimenez: 1976an ateratu zuen lehen mailako alea, argitaraldi bikotxa, bizkaieraz eta batuaz, apurka-apurka hiru maila osotzera helduko zana. Ikas metodologia sortzeak beragaz ekarri behar ziren beste premia bat: osogarriztat irakurgai-liburuak behar ziran, eta hori ontzeko Mikel Zaratégana jo eban, berau be une hatan Hizkuntza Eskolako irakasle bihurtua. Urte batzuetan zeregin horretan jardun eban, hari eta Deustuko Unibersidadean sortu barri zuen Euskal Filologia adarrean irakasle izateko dei egin eutsen arte: 1978-79 ikasturtean hasi zuen unibersidadean irakasle eta Hizkuntza Ofiziala itxi.

Baina artean onduri eukan *Bilbo irribarrez* bihurtuko zuen izkirimiri bilduma. Argitara emon aurretik, bai metodoa, bai irakurgaiok, kopia bidez erabiliak ziran euskera-eskoletan aproba modura. Behin eta barriro erabili, orraztu eta landu ondoren bialtzen ziran inprimategira. Halan egin zuen metodoaz, eta irakurgai-liburu honegaz be hatara egingo zalakoan gagoz.

Artean idazle ezagun eta ospetsu bihurturik egoan Mikelek idatziak zituan lehenagorik hizlaurko beste sorkuntza-obra batzuk: batez be *Haurgintza minetan* (1973) elabarria edo *Ipuin antzeko alegi mingotsak* (1975) alegi-bilduma. Liburuok irakurrik dituanak berehala antza hartu leio liburutxo honen estiloari. Zarateren prosa –kontakatze-modua, dialogo-alkarriketak, hizkera..., estilo osoa, berba baten esanda–, bere-berea da, beste inorena ez lakoa.

Zaretek egin dauena lango kontu-izkirimiri txorta bat idazteko, adimena zuhur eta belarriak adi egon behar da: entzuten jakin holako kontuak dakizani eta kontakaten dituanari; buruan gorde gero, eta ahaztu baino lehen idatziz ipini.

Mikel Zaretek, berbalagun atsegina izanaz ostean, belarriak tente euki ohi zituan esatari eta kontulari onen aurrean, areago euskeraz baziharduen. Bardin izango zuen meza osteko eleizpeko edo tabernako barriketaldian, bazkal- edo afalosteko lagunarteko autuetan, autolagun ebanagazko ekinean, bidean aurrez aurre topez egiten eban andrazko eta gizonezkoari epe-tasan handiz berbea emonaz edo zirikadaren bategaz dendatuz. Batari eta besteari entzunak dira hemen jasoriko kontu asko, eta jakina, gero idazleak berak orraztu, leundu edo apainduak. Idazten eta kontetan maisu zuen baten eskua eta luma dagoz beti be herri sundako kontu zaharron azalean, hareei barniza eta apaindura emoten.

Zaretek honelako obra baten bere maisutasuna, sorkuntzan baino idazkeran erakusten dau gehiago: bere egitekoa, labur eta ahoz entzun edo baturikoa idatziz hornidu, ugaritu eta apaintzean datza. Labur kontetan dana hornidura gehiagoz osotu,

birabuelta gehiago emon, harik eta literatura gradua erantsi arte. Horren erakusgarri garbiak dira *Kutsadura kutsaduraren gainean* edo *Ondo bai baina* deritxenak, bi esateko. Baina horretan be aldeak dagoz batetik bestera. Izan be, kontakizun batzuetan apainduria gitxigaz jokatzen dau, soilago ahozkotik hara balitz legez: *Txuleta handia eta txikia*, kasurako.

Apur bat ezagutu genduanok ondo dakigu atertu bako ekina eukala Mikelek kontuginen hasi ezker; eta aurrean entzuten zituanak be gogaitik nekez hartuko eben, ikasgela barruan zala edo lagunartean zala. Ahoa betean isurtzen zituan behin banan kontakizun eta pasadizuak –pasadizutakoak sarriago–, eta ahoa zabalik bitsetan entzule zituanak. Izan be, Mikel esataria zan, idazle zan hainbatean behintzat; irakaslea, sermoelaria, kontularia... plazagizon berbazalea.

Obra hau, bere laburrean eta arintasunean, literaturatzen jo geinke ikara barik; eta bikaina, erraz irakurtekoaz gainera. Idazlearen gogoan ez egoan beharbada goi literatura asmorik berau ondu orduan. Lauaxetaren antzean, poesian ekusan gehiago literatura jagiaren espilua.

Asmo apalagoz erne zan, gorago esan dan legez, lan hau; gomendio edo eskari bati erantzunez; euskera ikasten zihar-duentzatzat pentsaturik. Euskaldunbarriok, gramatika eta lexiko hutsezko automata batzuk barik, benetako hiztunen antzak eta erak hartuz, sakonago euskaldundu eitezana, hizkera koipetsuago baten jabe egin eitezana. Euskaldunzahar eta barrien benetako sinbiosi bat gerta zedin gura eban.

Eta helburu horrek ezinbestean halako munarriak ipinten eutsazan testuari.

Izenburutik bertatik hasita: *Bilbo irribarrez*. Bilbao da mintzagai zuzena, ez idazleak bere jaioterria edo hain barrura sarturik eban Txorierra, hasi Lezamako sorterritik eta Lauroetako domekaroko meza-sermoiak egiten zituan ermitaraino. Txorierrak, eta batez be Mikelen Txorierrak, bizkarrazur euskalduna eban, batez be hango baserri-jente artean; baina Bilboko botxoak ez, nahiz han be euskalduntasuna gitxi-asko bazan, batez be Atxuriko plazan eta Bilbo Zaharreko zazpi kaleetan. *Bilbo* hori zan euskaldun egin eta erakutsi beharrekoa, baina albo-herri euskaldunen ikutuaz, koloreaz eta usainaz. Hataraxe bakarrik jaritsi eitekean Bilbo atzera be euskalduntzea; mende bat atzerago lez, inguruko betiko euskaldunakazko hartuemon etenbakoan. Mikelen amesa, Txorierraren mendua Bilbori barriz txertatzea zan, lehenagoan legetxe. Aspaldi zaharretik emon izan deutse Txorierriko baserritarrek Bilbori janaria, baserri sundea eta umorea be: “Txorierra izan da, batez be, gure Botxoaren botxo aberatsa”, haren esanean.

Euskalduntze-bidea, berez be neke-lorrez beteana dan bide latzori, bere umoreaz arindu eta eztitu gura eukean Mikelek; horregaitik daragoio *irribarrez*, umorea dariola ertzetik ertzera.

Bestetik, kontakizunok erraz ulertzeko eran eskeini nahi eukezan; egitura korapilotsuegi barik. Euskera ikasten ziharduana gurutze hori sendeka eroateko moduan, neurrira eginiko soinekoa lez atondu behar eban testua.

Irakurgaiak, egituraz eta lexikoz gaxtegiak ez izatez gainera, luzeegiak be ez ziran komeni; eskola-orduan moldatzeko modukoak gitxienez.

Umorea literatura-gai bihurtzea idazleari barruak agindu deutsan kontua da; berezko lehia sakona. Ondo irakurriak eta mamurtuak zituan herriko eta erbesteko idazleen obra barre-eragileak. Etxekoan artean ez ziran faltako Kirikiño, Zamarripa,



Juan San Martin edo Felix Bilbao. Ez deutso alperrik erantsi, liburutxoaren sarreran, harako Kirikiñoren txataltxo. Izan be, inori antzik hartzekotan, harexeri hartu leio bilduma honen edukiak; eta kontu bat edo bestek Kirikiñogan dau sustraia be: *Mutil bat edo neska bat?* deritxanak, kasurako.

M. Zaratek, landu zituan beste genero batzuetan legez, tradizino baten jarraitzaile eta bultzatzaile izan gura eban. Halan autortzen eban *Ipuin antzeko alegi mingotsak* bildumaren sarreran be: aurretiko euskal alegigileen kate horretan, hareen segidako katenbegi barri bat izan gura ebalakoa.

*Bilbo irribarrez*-en be literatura genero –edo azpigenero– jakin baten oinordekotzat agertu gura dau, eta bere sorkuntzazko emoia uharka horretara irauli; ez beharbada, aurretikoen urakaz nahastu eta uholde ugariagoa sortzeko asmo hutsagaz. Zarateren asmoa urruntxoago doa; ur barri eta freskoagoa gehitu gura deutso lehengo zingireari: baserriko pekorotz sundea eta abarka-trailak bazterrean itxi eta kalearteko gorbata zapata dotore giroa “euskal umoreaz” nahastau eta mendatu. Aldian aldikoa, eta gizarte uritartu baten eskariai erantzun: eta kaletarren artean euskera egingo bazan, gura-ta-ezekoa zan kaletarren umorea euskeraz sortzea. *Bilbo irribarrez* bildumak umore kaletarra noraino sortzen dauen beste kontu bat da: kontakizun batzuei baserri giroa darie oraindino garbi-garbi; beste batzuk, erderaz jazorikoak euskerara bihurtuak dirudie. Baina gogo-intentzinoak hor dagoz tinko: Bilboko kaleartean euskal umorea sortu edo bizitu, behinola Juan San Martinek Eibarkoaz egin eban antzera.

Garandu dituen gaien inguruan zertzelada bi.

Aldiko euskal literaturaren eta idazleen inguruko zirikadatxoak be badira; *Idazle txarrak errekarra* ataltxoan, esaterako: 70-80 hamarkadako euskal idazleen giro nahasia, eta batez be Bilbo aldekoena gogoan euki behar da umore-eztenkadok ulertzeko.

Politika sundako konturik gitxi dago bilduman, diktadura aldendu barri zan uanean idatzia izan arren. Artean, demokraziaren atek idegiten hasita egozan, eta *Haurgintza minetan* elaberrian hain ugariak diran mozorro-irudirik nekez idoroko dogu hemen. Giro nasaia eta normalduagoa zanaren ezaugarria. Baina politikagazko zirikada apurrok be umoreaz estaldurik dagoz beti. Halan, *Semafoeren legea* titulupekoa, Franco-denporako eleiz hierarkiari buruz.

Hogeta hamar urte inguru badira bilduma honetako testuak ondu zirana, danak edo ia danak; eta irakurgai lez erabili zirana Hizkuntza Eskola haren euskerako hasikin-urratsetan. Bilbok aldatze handiak ezagutu ditu ordurik hona, baina barrenean lehengoa da. Eta orduan legez gaur be, Bilbo euskaldunago baten amesean Mikel Zarateren gogo barritu gura izan dogu *Bilbo irribarrez* liburua atzera argitara emonaz.

Ekina egina bihurtu bedi.

A.A.



## HAMAIKA BARRE

Begiak ikusteko ei dira. Ni, ostera, barre egiteko dirala-ta nago.

Badakit jakin, gizonaren lehenengo barrea negarra dala; baina laster jabetzen gara, mundu honetan irauteko, barreka bizi behar dogula.

Giza-ingurura begiratu eta barregairik ikusten ez badogu, kito, ito jaku barrea bihotzeko begietan. Joan jaku bizi-poza. Eta behin barrea galdu ezker, ez daukagu beste aukerarik ihes egitea baino, herio-itzaletan murgiltzeko.

Izan be, mundua ezbardina da, barreka begiratu ezker.

Bilbo ezbardina da, irribarreka ikusi ezker.

Gure geure burua be ezbardina da, irri begiz begiratu ezker.

Sarreratxo honetan, **irriño**tik **barre zantzor**ainoko bidea egingo dot, hamaika pausotan, txikitik haundira, Mikeli entzundako barrekizunak ekarririk, liburutxo honen gehigarri.

Azken baten, barre egiteko eta barre eragiteko bizi gara.

### 1. Irriñoa

Barriketa gutxi

—*Ta?*

—*Ba!*

### 2. Irribarrea

Belarritik ezagutzen da gizona

—*Belarri handiegiak daukazak gizona izateko.*

—*Eta hik txikiegiak astoa izateko.*

### 3. Irria

Belarri zolia

—*Xabiartxo, garbitu egizuz horreik belarri zikinok!*

—*Ondino entzuten dot, ama!*

#### 4. Barrea

Katua berbetan

—*Gure txoritxo ikusi dozu, ume?*

—*Ez, baina zueneko katuagaz barriketaldi ederra egin dot.*

#### 5. Barre zuria

Gogoa non, zangoa... etxean

Emazteak senarrari, opor-ametsez:

“*...eta itsasoaren aurrean, gogoan izango zaitut*”.

Senarrak emazteari, ezetz:

“*Hobe nire aurrean itsasoa gogoan bazendu*”.

#### 6. Barreabarra

Ahal danean dana eta ezin danean ahal dana

Aitita hormara txizaginen. Lobatxo begira-begira:

—*Aitita, orain lehen baino gorago egiten dozu txiza.*

—*Bai, ume, lehen abarka puntara eta orain belaunera.*

#### 7. Barre-algara

Harotzaren autortza zintzoa

Abadea, autortu aurreko jakingarriak argitzen:

—*Ezkondua?*

—*Ez jauna!*

—*Ezkongaia, orduan.*

—*Ez jauna!*

—*Alarguna, akaso?*

—*Ez jauna!*

—*Bizi-alarguna edo?*

—*Ez jauna!*

—*Ze jainkoren seme zara, ba, zu orduan?*

—*Ni harotza, jauna!*



## 8. Barre-purrustada

Gauerdiko irargi betea Bilboko Plaza Barrian:

—*Hi, Otxandi, zer dok han goian dagoan talo zuria?*

—*Etxakiat, ni ez nok hemengoa-ta!*

## 9. Barre gangarra

Anton Mozkorren herrena

Han non doan Anton Mozkor Iturribiden gora, hanka bata ezpaloian eta bestea bidean dauala, herren-herrenka. Eta auzoko Margarik:

—*Zer, Anton, gaur be lebatza harrapatu dozu ala?*

—*Ez, gaurkoa ez da lebatza, katua baino; eta alperrik da zapi esatea.*

—*Ba, ea bihar atxurra harrapatzen dozun, katu hori kentzeko.*

Anton Mozkor, aieneka:

—*Ai ene bada ta ni!*

—*Nora zoaz, baina, hanka bata behean eta bestea goian dozula, ba?*

—*Aitearen! Neuk bai! Egia dinozu. Herrenka-herrenka ninoian ezkeru, koxo nengoala ez jat begitandu, ba!*

## 10. Barre putza

Matxinsalto gorra

Danok dakigu matxinsaltoak hiru hanka pare dituela: bi aurrean, eskutat erabilteko eta beste hanka pare indartsu bat atzean, salto egiteko. Gure jakintsua azterlan sakona egiten dabil: matxinsaltoari aurreko lehen hanka pare kendu, atzamar puntan jarri eta badinotso: egin salto, egin salto! Eta, jakina, matxinsaltoak ttanka, salto. Eta, orduan, bere ohar-liburuan holan idazten dau:

“*Matxinsaltoari, aurreko lehen hanka pare kendu, atzamar puntan jarri eta ‘egin salto’ esanez gero, matxinsaltoak salto egiten dau.*”

Aurreko bigarren hanka parearekin be beste horrenbeste egin eta holan idazten dau:

“*Matxinsaltoari, aurreko lehen hanka pare ez eze, bigarrena kenduta be, atzamar puntan jarri eta ‘egin salto’ esan ezkeru, matxinsaltoak salto egiten dau*”.

Baina, gero, hirugarren hanka pare kendu utsanean, salto egiteko erabilten dauan atzeko hanka pare indartsua, orduan matxinsaltoak ez utsan saltorik egin, eta holan idatzi eban bere ohar-liburuan:

“*Matxinsaltoari, atzeko hanka pare indartsua kendu ezkeru, ez dau ezer entzuten*”.

## 11. Barre zantzoa

Mikelen barregarririk barregarriena: Haginak zorrotz!

—*Nik hagnetatik dakit zenbat urte dituan edozein animaliak.*

—*Bai, gero?*

—*Bai, eta ondo errez.*

—*Zelan baina?*

—*Ba, idiari, berbarako, zabaldu ahoa, zenbatu hortz-haginak eta dsaust, hainbeste urte.*

—*Errejoño! Txakurrari be bai?*

—*Bai horixe! Sartu makilea hagin artean, ikusi zenbat dituen eta dsanga, hainbeste!*

—*Oilarrari be bai?*

—*Baita oilarrari be!*

—*Oilarrak ez dauka haginik ba ta!*

—*Oilarrak ez, baina nik bai!*

Barreka bizi gura badozu, ez kendu begirik han-hemenka sortzen diran barre-keinuei.

Jesus Eguzkitza *Eguzki*

“Beti-beti hauteskundeak edo herri-zuzentzak edo holako gauza benak erabagi barik, ondo da noz edo behin gauza arintxuak, barregarriak erabiltea be, norbere gogoari atsedean (deskantsu) apur bat emoteko.

Arazo astunak erabili ohi dabean gizon guztiak egiten dabena da noz edo behin olgeta batzuk egin, arazoak alde batera itxita, eta hori eginaz atsedean haundia hartzen dabe.

Guk be gaur horixe egin behar dogu, olgeta batzuk esan eta barre batzuk egin. Barre egitea osagarria da. Barrerik egiten ez dauena galdua dok.”

*Kirikiño*





## *Lehenengo irribarrea*

—Umorea galdu barik gero, txo!

—Galdu? Nik ez dot sekula be galtzen umorerik.

—Ez?

—Ez, gizona! Beti daukat nik umorea, ona edo txarra.

Umorea ona eta txarra hutsune batetik sortzen dira gehienetan. Zerbaiten gabeziatik. Ezetik. Eta hutsuneaz baliatzen da horretarako, hutsuneaz jokatzeko dau, hutsuneaz jostatzen dau, hutsuneaz egiten dituzte bere lanik ederrenak gizonak.

Hutsunea bete nahirik hutsuneaz jatorri eta maisuki baliatuz egiten dituzte gizonak egiten dituzten gauzarik ederrenak. Hutsune hutsez zatarki baliatu izan danean, osterara, poztasuna tristura bihurtu izan dau, mesedegarria kaltegarri, gizontasuna gizonkeria. Eta hortik sortu izan dira guzuz-

rra, gorrotoa, askakeria, gogorkeria, garrazkeria eta gainerako *keria* guztiak, gizona lehen baino hutsago, gizajoago eta errukarriago bilakatu.

Barre edo negar be hutsuneagaitik egiten dau gizonak. Hutsunea bete nahirik. Norbait edo zerbait falta jakolako. Eta gizonak bakarrik egiten dau barre. Txakur batek, lora batek, harri batek ez dau barrerik egiten.

Inork be ez dau arrazoi handiagorik negar egiteko gizonak baino. Baina barre be egiten dau. Eta berak bakarrik egiten dau barre. Norbaiten edo zerbaiten hutsuneagaitik. Norbait txikia edo itsusia dalako. Burusoila edo errena dalako. Norbaiti trolebusean frakak edo jantzia apurtu jakozalako. Jantzia kotxe batek zipriztindu deusalako...

Gizonak bakarrik egiten dau barre. Zuk, nik, guk bakarrik egiten dogu. Eta “gehiagikeriazko hutsuneren bategaitik” be barre egiten dogu. Norbaitek sur luzea edo buru handia daukalako, zapazto bat dalako. Eta hutsune hori gehituz, handiagotuz, gehiagikeriaz jantziz, hau da, hutsuneaz baliatuz, egiten dogu barre. Esate baterako, bizimodu txarra emoten deutsan andra sorgin bat hartu eban gizon batek edo bizimodu txarra emoten deutsan gizon mozkonti bat hartu eban andra batek bere lagun bati esatean: Bai. Ezkondu aurretik, nobiotan, “maite zaitut, poxpolin xamur goxo hori. Maite-maite, maiteño kuttuna, gozokirik goxoena. Jan egingo zindukedaz”, esaten neutsan, behin eta barrero, maiteminduen zorabioz. Baina, orain, badakizu, orduan egindakoaz damaturik, hauxe esaten dot neure artean: “Orduantxe jan egin baneu jan sikan, nire bakea!”.

Barre, irribarre edo barre algarak egitea berezkoa dau, ba, gizonak. Gimnasia osasungarria gogoarentzat eta gorputzarentzat!

Barre eragitea be berezkoa dau gizonak. Baina ez da hain erraza izaten (negar eragitea bai). Eta, nirera etorriz, letren bitartez, hitzeko karikaturaz barre eragitea nahiko zaila izaten da. Eta horrexegaitik ditugu barreragile onak hain gitxi.

Nik be barreragile on bat izan nahi neuke (geroak esango dau nazan ala ez). Barreragile on bat izan nahi neuke, baina bide barriak urratuz. Izan be, orain arteko idazle barreragileek baserri-tarren pasadizu barregarriak bakarrik idatzi izan ditue gehien baten. Uritarrenik, kaletarrenik ez. Eta hutsune handi bat dago gure literaturan.

Hutsune hori betetzeko asmoz, Euskal Herriko uribururik handiena aukeratu dot horretarako: Bilbo. Eta erdaldundurik dagoan gure Bilbo hau berreuskaldundurik ikusi dot gurari biziaren amets bultzadaz.

Bilbo deseuskaldundua berreuskalduntzeko ahalegin kaxkar bat baino besterik ez da liburu hau edo koktel hau. Hain zuzen be, bilbotarren jazoerak eta Bilbo inguruko baserritarren euskera jarri ditut, lehenengo eta behin, pitxer barri garbi baten. Gero, irabiatu egin ditut eta kaleko euskera eta erdera ttantta batzuk bota deustadaz gainera nahasturari, baserri usain gehiegirik izan ez dagian; azukerea be bai, gozo egon daiten, eta limoia, gozoegi egon ez daiten. Irabiatu egin ditut barrero be eta pattarra bota deustat gainera bero egon daiten, eta izotza, beroegi egon ez daiten. Eta, azkenik, irabiatu ondo-ondo dana, “Zuen onerako!” esan... eta neuk edan dot.






## *Idazle txarrek errekarara!*

—Ba, ba, ba...! Gauza ez diran idazleak kalte egiteko bakarrik dira. Entzun dozu? Horrexetarako! Bestetarako ez. Hara: badakizu zer egingo neuskien holakoei? Errekara bota. Haraxe botako neukez, bai, ezertarako balio ez daben idazle txar guztiak —esan eustan lehengo baten nire lagun idazle batek *Bilbo Irribarrez* idazten hasi nintzala-ta, alkarrizketan gengozalarik Askatasun kaleko Mikoleta liburudendan.

—Baina ba al dakizu zuk uger egiten? —erantzun neutsan bilbotarren ironiaz.





## *Esne bateatua*

Bilbok, dudarik gabe, bere nortasun berezia dauka. Eta bilbotar baktxari be bere nortasuna emoten deusku.

Gure aparteko nortasun hori uri honetara lehenago etorririko baserritar langileen fintasun, zuhurtasun, maltzurkeria, harrokeria, gatz, piperminenez eta perejilez egina dala uste dot nik, hau da, uritar, kaletar bihurtu garan baserritarrak garala bilbotarrok.

Bai, badakit kanpotar asko etorri dana azken berrogei urteotan<sup>1</sup>. Badakit gure nortasuna bera be aldatu egingo dabena bertokotuz bertokotuz. Baina oraingoz behintzat gure nortasunaren eta

---

<sup>1</sup> Gerra ostetik gora esan gura dau, 40 ingurutik.

zertasunaren, gure izakera eta kulturaren jatorria baserria dala esango neuke. Eta, horrexegaitik, baserrira, iturrira, gure sustraietara joten dogu beti gure nortasuna agertu gura dogunean, hau da, baserritartu egiten gara, gure baserritarren ezaugarriak agiriak geuregandu eta geuretu egiten ditugu.

Gure etxeetan baserritarren irudiak eta argazkiak (euren txapel, buruko painelu, sudur eta okots luzez) edo lanabes eta tresnak eukiten ditugu apaingarriztat.

Gure taberna, bar, jatetxe, kafetxe, gau klub, boite eta abar be, baserri erara edo baserrietako gauzez jazen ditugu, eta baserri usaineko izen dotorez bateatu: *Mama gozoa* (Enbeita kaleko taberna), *Txinboen kabia* (Lauaxeta kaleko dantza lekua), *Artopil* (Artola eta Pildainen jatetxea, Ikurrin kalean), *Xeluko Txalien Uldaia* (Txin Txo txinoaren jatetxea, Askatasun kalean), *Zirritoki* (gau klub entzutetsua, Euskal Herriko enparantzan), *Basoko ur gorria*...

Gure orfeoi entzutetsuetako abeslariak be baserritarren, lehenagoko baserritarren erropa jatorrez jazen dira. Eta baserritarren abestiak kantatzen ditue.

*Batzuk uju,  
besteak juju,  
berein agure han dira  
bekaitzarren begira.  
Bizkor ta azkar,  
lehena bakar  
dabil jira ta bira.  
Txakolin, txakolin,  
txakolin eta txuzpin,  
txakolin, txakolin,  
txakolinak on egin.*

Gure txistulariak, soinulariak eta dantzariak be baserritarren erara jazen dira. Eta mutikotxoak eta neskatotxoak be bai jaiegun handi batzuetan. Eta mutikotxo eta neskatotxo ez diranak be bai halako egunetan. Eta beste egun askotan be bai.

Gure etxeetan, gure kaleetan, gure mendietan, gure batzarretan, bazkarietan, afarietan..., edozein lekutan eta edozein ordutan, edozein talde orfeoi bihurturik, baserritarren abestiak kantatzen ditugu bilbotarrok. Eta gartsu kantau be.

*... y también hay derecho  
meriendatzean,  
y haserle zirris a la criada  
sukalde atzean.*

Eta gure Athletic ikustera Madrilera joaten garanean? Orduan gara mutilak bilbotarrok! Orduan kaiku edo brusa, garrikoa, abarkak eta guardasol baten antzeko txapeltzar bat jantzirik, gure zahatoak eta eztarriak ardoz eta baserritarren kantuz aseturik, hor goaz, zerak guztiak baino harroago, zoroago ta farolago, gure euskal nortasuna non-nahi erakutsi gurarik, gure bilbotartasuna eta bilbotarkeria non-nahi agertuz.

*I, i, i, ardoak gaitu bizi,  
noizik behin ongi busti,  
edan gabe ez utzi,  
i, i, i, ardoak gaitu bizi.*

—Ez al dakizu zer dan Bilboko ura? Zuek madrildarrok ez dakizue ezer jakin be ta, agintzen edo izan ezik! Txanpana, gizona, txanpana! Atera, bai, atera bizkor! Bat...? Nor garala uste dozu, ba? Bategaz hasteko be ez dogu, txo! Zenbat? Zortzi bat botila edo. Atera, atera! Lehenengo txandarako nahikoa izango da. Gero gerokoak!

—Aupa Atleti!

—Ehun pezetakoa<sup>2</sup>? Hori kalderilla da guretzat.

Nortasun berezia dogu, bai, bilbotarrok, Bilboko farolen argitan. Eta nortasun hori baserritarrengandik datorkigu. Eta Txorierrri aldeko baserritarrengandik gehien baten, gure asaba eta eredu izan ditugun txorierritarrengandik.

---

<sup>2</sup> Eurorik ez egoan artean: pezetak, hogerlekoak, ehun pezetako billete gorriskak, mila pezetako billete berdeak. Diru-mota horreek darabilz Mikel Zaratek bere jardunean.

Izan be, Txorierrri izan da gure baserria, Txorierrri gure ortua. Zenbat eta zenbat ortuari etorri ete da handik hona otzaraz, zaranez, zakuz, zorroz, lepoz, gurdiz, trenez, astoz, autoz...?

Txorierrri eta Bakio izan dira gure txakolin iturri be. Gure esne iturri be bai. Txorierrri izan da gure mahastia eta behia. Zenbat eta zenbat txakolin garrafoi eta botila eta esne kantinkada etorri ete da handik hona?

Gure txori herri be Txorierrri izan da. Unamunoren berbak erabiliz esanda “Chorierrri, la inmensa calma de la aldea, tierra de pájaros, la tierra de promisión, el campo de los chimbos y chimberos”.

Txorierrri izan da, batez be, gure Botxoaren botxo aberatsa. Baina hauxe da handiena: Txorierrriko baserriarrak burlazar hartu izan ditugula gehienetan eta *kokolo, jebo, artaburu, morokil, borono, arlote* eta holako lora mingarriak bota deutseguzala maltzurkeriaz.

Bai. Ondo eginaren pagua, ate ostean palua edo lepoan palua, gure erdal jakituriaz, gure uritarkeriaz, gure adar joteaz, guk bilbotarrok aurretik erabili izan ditugu txorierritarrok. Eta, jakina, ikaratu egin ditugu. Barrero be Unamunoren berbak erabiliz, “el chorierrico teme al chimbo bilbaino, que se burla de él, le pisotea las sementeras y le manosea la hembra”.

Halan eta guzti be, kokolo aurpegia ipini arren eta ikara itxura, badakie, ondo be ondo jakin be, eurentxoia egiten. Semeak zuhurra dala uste izan arren, aitag baino gehiago dakiala pentsau arren, aitag gehiago jakiten dau eta zuhurragoa izaten da bizitzako gorabeheretan. Bai ba: zer ikusi, ha ikasi.

Guk bilbotarrok be, gure guraso diran txorierritarrok baino gehiago dakigula uste izan arren, zer ikasi asko dogu oraindik txorierritarrengandik. Gu adarjotzaile, burlati bagara, Txorierrriko baserriar kokolo artaburuak gehiago dira oraindino. Eta guk tranpak egiten deutseguzalakoan, eurek egiten deuskuez handiagoak guri. Kokoloka be, kontuz Txorierrriko baserriarrekin. Eta esne saltzaileekin batez be! Bizkorrak zer dira gero!

Lehenago, Bilboko kalerik kale eta etxerik etxe ibiltzen ziran txorierritarrok egunero esnea errepertitzen, noizean behin iturriren baten geldialditxo bat eginez. Iturri asko egoten ziran egon be orduan Bilboko kaleetan eta! Baina, gero, esne-zentralak sortu ziran eta esnea Bilbora ekarte-



ko eta hemen errepartitzeko beste era batzuk sortu ziran, eta ez jakuz orain esnedunak Santo Domingotik edo Enekuritik behera etorten. Zentraletako kamioiak eurak joaten dira orain base-  
rietara, eta esnea neurtu, esnearen lodiera neurtu, salneurria neurtu..., esnea esne izaten ei da  
orain eta litroa litro. Kristau izan ziran baserriak jentildu egin dira barrero be (basajaunik bako  
basoen jaun izanik orain), eta zentralak kristautu, eta zentraletan bertan bateatzen da esnea orain,  
eta dendetan saldu.

Dendetan saltzen dan esne hori edaten dogu, ba, gaur egun gehienok Bilbon. Baina guztiok  
ez. Urazurrutian bizi dan Zorion Potolori (potoloa zer da gero izan be berau!) Txorierriko baserri  
batetik ekarten deutse orain be egunero kotxean, Derioko baserri batetik.

—Ez dago baserriko esnea lakorik. Botako deutse, bai, beharbada, ur apurren bat eta neurrian  
be zeozer ostuko dabe... Baina, halan ta guzti be, ez dago baserriko esnea lakorik. Hurrik emon  
be ez! Horixe ez! —esaten dau Zorionek bere potolotasunari eta zoriontasunari eutsi ezinik.

Oinez ibiltea komeni jakola-ta, Derioko baserriraino bertaraino heldu zan lehengo arratsalde  
baten, etxeko legez zituan Martina eta Klaudioaren baserriraino. Eta esnea erasten Klaudio  
orduantxe.

—Kaixo, Klaudio!

—Ene! Zorion! Arratsaldeon! Zer? Zelan, ba, hemendik?

—Ba, badakizu... Lodiegi nagoala-ta, medikuak...

—Bai, badakit. Ez dakit nork esan eutsala esan eustan nonok lehengo asteen edo. Ba, begira.  
Atzo bertan ibili zintugun gogoan gure atsoak eta nik. Zelan oinez ibilteko agindu eutsun medi-  
kuak, egunero ibiltaldi handiak egiten dozuzala, zelan Artxandarantz joaten zaran...

—Gaur honaino etorri naz etxetik hasita.

—Ibiltaldi ederra egin dozu. Benetan!

—Nekatu-nekatu eginda nago.

—Oinez joateko ostera be?

—Ez, ez. Bai zera! Lar izango litzateke hori niretzat. Gaurko nahiko da. Trenoz noa.

—Ederto!

—Eta hemen nagoan ezkerro, esnea be neuk eroango dot. Holan ez dozue bihar hara etorten ibilienik.

—Baina...

—Kantintxoren bat izango dozue horretarako, ezta?

—Bai, bai. Baina... Bardin-bardin joan behar dogu bihar.

—Bai, badakit. Baina neuk eroatea gura neuke baten.

—Ondo dago. Oraintxe ipiniko deusut. Zoaz sukaldera, oraintxe joango naz neu be ta. Martina! Zorion etorri da.

—Oraintxe arte, Klaudio.

—Bai.

Ezkaratzera joan zan Zorion Martinagaz. Eta intxaur batzuk eta txakolina atera eutsazan honek. Eta jaten, edaten eta alkarrizketan egozalarik, dei bat entzun zan korta aldetik. Klaudiorena.

—Martinaaa!

—Zer?

Hasarre eta izerditan egoan Klaudio deabrua bera baino ostikalariagoa zan behi zahar bati esnea eratsi ezinik. Balde erdi bat erasteko ordu erdi baino gehiago emon eban.

—Ekarri ura, Martina!

—Baina, Klaudio...

—Ekarri! Txabolako txorrotik. Arin!

—Baina, gizona...

—Arin ekarteko, ba!

Esan eta egin, badoa Martina dardarka ura ekartera, Zorionek ikusiko ete dauen bildurrez.

Ura ekarri, eta goraino bete dau baldea Klaudiok, Jesus eta amen esan orduko. Eta sukalde-rantz doaz senar-emazteok berehalaxe.

—Esne asko behiak, e? —Zorionek, baldekada esnea ikusirik.

—Sarri euki izan ditugu behi esnetsuagoak be. Behi holandesak esne asko bai, baina mehea emoten dabe. Esne ona bai —Klaudiok.

—Itxura hona dauka honek behintzat —Zorionek.

Jan, edan, alkarrizketa luze bat egin eta pozik joan zan Zorion trenerantz, eskuan kantintxoa hartuta. Pozik bere Botxo maitera.

—Ez dago baserriko esnea lakorik! Eta gaurkoa erraperik harakoa gainera! Ez dago baserriko esnea lakorik...!



## *Adierazkortasunaren munduan*

Patio zahar zikin bat. Neskato bi eta bost mutiko, txakurtxo batekin olgetan. Atso bat, atso barrendari nonzebarri begiluze bat.

- Ederto olgetan dozue gero!
- Bai.
- Nongoak zarie zuok, ba? Bertokoak?
- Bai.
- Zuk, neskato, zelan dozu izena, ba?
- Estitxu.
- Eta zuk, mutiko?
- Txutxi.



—Eta zuok biok?

—Ni Mentxu naz eta hau Txetxu.

—Eta honek, mutiko polit irribarretsu honek, zelan dau izena?

—Hori Txabi da.

—Eta hori?

—Txema.

—Eta ha?

—Txuma.

—Eta txakurtxo lumazto olgetari honek zelan dau izena?

—Tomas.



## “Munduko surren surrik surrena”

Bilbo aldean “Zu mutil zuhurra zara” edo “Zu neska zuhurra zara” esaten deitsuenean, kontuz ibili behar dozu, adarra jo ez dagitzuen.

Hain zuzen be, era bitara ulertu daitekeen hitz joko bat izaten da esakera hori sarri askotan, sur luzea badozu batez be.

Bai. Guk bilbotarrok, badakizu, *zuhurra* eta *surra* adierazoteko *surra* esaten dogu eta kitu. Eta, jakina, hortik sortzen da adarjotzaileen hitz joko barregarri hori. Izan be, “Zu mutil (edo neska) zuhurra zara” esaten deitsuelakoan, zure bizkortasuna goratuko balebe legez, “Zu mutil (edo neska) surra zara” esaten deitsue, zure sur handiagaitik.

Harritzekoa be ez da hori Bilbon jazotea, hemen gehienok ditugulako sur galant ikaragarriak, neurrigabeko surtzarrak. Bai horixe! Eta ez gara lotsatzen horregaitik, harrotu baino. Harrotu, bai. Sur handia eta txapel handia, bilbotarren ezaugarria... eta harrokeria.

Orain ehun urte inguru Bilbo ondoan bizi izan jakun Eusebio Azkue euskal idazleak (Resurreccion Maria de Azkue izan zanaren aitak) esan ebanez, gure surra “Babelgo torre leiho bikoia” da, “sur erraldoia, jagole barik haziko surra, sur hain handia ze bere erdia da gehiegia, munduko surren surrik surrena...”

Bilbo Zaharreko tabernarik taberna egunero *gurutz-bidea* egiten ibiltan dan gizontxo batena dala esango neuskizu danetarik handiena. Izena Deunoro daukala uste dot, baina *Surtxu* esaten deutse guztiek, aldrebeskeriazko ezizen horrekin surraren neurria hobeto adierazoteko ironia bidez. Izan be, sur hutsa da gizajoa. Batetik bestera dabilenean, surrean eskegita doala dirudi.

Berak be ondo daki Surtxuk sur handia daukana. Eta zelan edo halan apur bat disimulatzeke edo, moko-painelua (mahaiko mantel bat dirudian moko-painelua) atera eta surra garbitzen ibiltan da txitean pitean. Pizka bat gorrituta be horrexegaitik eukiko dau, beharbada. Ardaoagaitik ez dot uste, neurriz edaten dau-ta.

Bilbotarren ezaugarria eta harrokeria da sur handia baina, hainbestereinokoa be...

Behin baten, betiko antzera *gurutz-bidea* egiten ebilelarik bere lagunakaz, egotaldi batetik besterantz joialarik, kitana lodi gona-luze ugertsu batek urten eutsan bidera Txakur kaleko iturritxoaren ondoan. Hiru umetxorekin egoan kitana eskeko hori: bere ondoan bat, lau bat urte inguruko mutiko baltzaran bizkor bat, sudur zuloetatik *kandela* hori-berdeak dariola; bere sabelean beste bat, laster egun argia ikusteko zain, eta altzoan hirugarrena, urtebete eta erdi bat izango zituan neskatotxo bat. Mutikotxoa erdi bilozik egoan, fraka zahar zikin apurtu batzukaz bakarrik.

—Zu, gizon! Mesedez! Limosnatxo bat, Jainkoaren izenean! Zuri eta zure emazteari eta zure seme-alabei bakea eta zoriona emon deioela Jainkoak! Limosnatxo bat, mesedez! —esan eutsan kitana apalak Surtxuri, esku eskoia luzatuz.

Ez eutsan jaramon handirik egin Surtxuk. Baina kitana ekinkorrek ekin eta ekin haren atzetik.

—Begira, gizon, zelan ditudan nire seme-alabak. Zureak hobeto egongo dira. Seguru! Ikusi, gizon: gaixorik dagoz eta erdi bilozik eta goseak hilik... Limosnatxo bat, Jainkoaren izenean!

Beti bezala, moko-painelua atera eban Surtxuk. Orduan, kitana zuhurrak, bere mutikoaren lepo narru gogorra maitekiro igurtziz, bihozkatu egin eban Surtxu. Eta...

—Ez dot uste zure seme-alabarik holan eukiko dozunik. Begira zelan dagoan nire semetxo errukarri hau, dagoan hotzaz. Ikusten dozu? Hartu, pozik hartuko neuke baina, horixe bai, dirurik emon ez arren be, emoidazu, mesedez, Jainkoak ordainduko deutsu-ta, zure moko-painelu hori, nire semetxo laztan honi alkondara eder bat egiteko... Eskerrik asko, gizon, eskerrik asko!



## *“Hablar hablo poco, pero...”*

Bilboko Hastagero kalean. *Agurital* liburudendan. Berrogeta hamar urte inguruko andra bat. Liburudendearen jabea dala dirudi.

Euskal idazle bat sartu da dendara. Liburuak ikusten ari da.

—Zu, mesedez!


—Si.

—Liburu hau al da azkenengo agertu dan barregarri hori?

—Es un poco caro, pero dicen que es muy bueno. Seiscientas treinta pesetas.

—Ez, ez noa eroatera. Jakiteko bakarrik izan da.

\*—Ahora mismo se lo envuelvo. Hablar hablo poco, pero entender entiendo todo. ¡Cómo me gustaría hablar el euskera como usted!



## *“On egin” jantokian*

Euskaldunok oso jatunak gara. Eta jaten hasi ezkerok...

—Zu, Tripaundi! Zenbat eper jango zeunkez zuk bazkari baten?

—Bazkari baten? Baraurik joan ezkerok, hogeta hamarretik gora.

—Eta oilagorrak?

—Hirurogei be bai, beharbada.

—Galeperrak?

—Galeperrak? Jesus! Ehun? Berrehun? Neuk be ez dakit zenbat. Asko.

—Eta zozoak?

—Hemengoak ala kanpo-zozoak?

—Bardin da.



—Ba hemengoak hirurehun, laurehun... Kanpokoak bostehun baino gehiago.

—Eta txori txikiak?

—Danak.

Jatunak eta okelazale amorratuak gara gu, eta baraua eta haragi-ixte eta holakoak ez jakuz inoiz be ondo etorri guri. Okelarik jan barik egon behar izan dogunean be, beste zerbaitez bete izan ditugu gure buzkantzak, eta, ahal izan dogunean, angulaz edo mariskoz.

Euskaldunen artean begetariano gitxi egon dirala uste dot.

—Baietz, ba, gizona! Zuok euskaldunok ez zarie konturatzen baina, begetariano izatea baino hobarik ez dago luzaro bizi izateko. Hor daukazu, esate baterako, Panr; ogia, gaztaia eta zerbeza apur bat bakarrik hartzen zituan, eta 132 urtetan bizi izan zan. Basamortuan bizi izan zan Paulo santuak be ogi pizka bat, ura eta barazki batzuk baino besterik ez eban jaten, eta 115 urte zituala hil zan. Arsenio, Arkadio enperadorearen edukatzaile izan zana be oso zahar egin da hil zan, 120 urte zitularik, eta fruta eta berdura apur bat baino besterik ez eban hartzen. Zera be...

—Bai, bai. Egia izango da hori. Baina ba al dakizu zuk zenbat urtetan bizi izango ziran gainera txuletak jan balitue?

Euskaldunok jatunak gara, eta bilbotarrok be bai, jakina. Horrexegaitik dagoz hainbeste jantoki eder gure uri honetan. Baina janari eta edari finak gustatzen jakuz guri. Mustur finekoak gara, eta zorrotzak jateko orduan, eta ondo atonduta eta fresko eta garbi ez badago jatekoa edo edatekoa, hasarrez jarten gara. Goiak jo eta beheak jo be batzuetan.

Hori dala-ta, hainbat eta hainbat gauza barregarri gertatu izan dira gure jatetxeetan. Lehengoan *On Egin* jantokian jazo zana, esate baterako.

Manu Zilbot, Busca Isusiren lagun handi bat, hasarre egoan eta agiraka ebilkon aurrean isil-isilik, apal-apal eta gorri-gorri eginda egoan kamareruari.

Inguruko mahaietakoak be, bazkaltzeari itxi, eta begira eta entzuten egozan.

—Ugazaba non dago? —Manuk.

—Ez dakit nora joan dan. Baina oraintxe bertan joan da nonora —kamareruak.

—Ez dago deretxorik honetarako! Lotsagarria da hau, lotsagarria! Baina non gagoz, ba? Bilbon ala Orensen? Ez dago deretxorik honetarako, ez! Euli bat zopan, euli baltz zikin bat! Salda hobeia egiteko okelatzat ala? Beste jatetxe batera joango naz eta kitu. Baina, hau dala-ta, biharko periodikuan nire artikulu gogor bat agertuko da. Ez. Hau ez da holan geldituko. Ikusteko be, handiagorik!

—Jesarri zaitez, gizon, mesedez!

—Jesarri? Zertarako? Angulekin batera gero beste euli bat... edo ziraunkume bat jateko? Horretarako jesarri?

—Parkatu! Arrazoia dozu, bai. Guk, beste jatetxe batzuetan egiten diran antzera, ahaleginak egiten ditugu hemen janariak eta edariak ahalik garbien eta...

—Ez dakit, ba. Ez dago itxura handirik. Ikusteko moduko eulia dala uste dot nik hau. Ez?

—Bai, bai. Hasarregarria da hau zuretzat. Baina guretzat hasarregarriagoa, azkena da eta hau guretzat.

—Jakina. Holan...

—Horrexegaitik, hutsen bat egiten dogunean, bezeroei parkeskeka egon behar izaten dogu. Eta, gainera, eurek gura dabena emoteko, zerbitzeko prest. Eskatu egizu, ba, mesedez, zeuk nahi dozuna. Hemen dozu menua. Zeuk nahi dozuna eskatu eta behingo baten ekarriko deusut.

—Ez, ez. Hori gehiegi da. Badakizu, berotu egin naz-ta...

—Baietz, ba! Etxeak egiten deutsu konbita ordaingarrizat...

—Baina...

—Geu izan gara errudunak...

Nasaitu egin zan pizka bat Manu.

Kamarerua arineketan joan zan ezkaratzerantz.

Inork igarri ezteko modura, makurka-makurka, gailegu itxurako gizontxo bat etorri jakon orduan alboko mahai batetik, irribarrezka, bere ondora Manuri.

—Zu! Itxiko deustazu, mesedez, apur baten zure zopan dagoan euli hori?





## *Ostrazale amorratua*

- Ostrarik badaukazue?
- Bai. Badaukaguz bai.
- Dozenatxo bat atera orduan.
- Ederto.
- Baina ostra onak gura ditut gero! Ostra handiak, fresko-freskoak, lodi-lodiak, hotz-hotzik, zabalik, limoiagaz, piperrauts apur bategaz, eta...
- Perla eta guzti ala perla barik?



## *Etxe handiagoak behar dira Bilbon*

Hainbat etxe-orratz egin izan dira aspaldiko urteotan Bilbon. Hamar, hoge, hogeta hamar pisuko etxe ikaragarriak.

Botxo baten sartuta dago egon be gure Bilbo eta, zabaletarantz ezin danean, gorantz egin behar.

Oraintxe dago amaitu barri hogeta hamar pisuko etxe-orratz eder bat, Indautxu aldean. Orain arte egin danetatik ederrenetarikoa. Eleiza, ikastola, denda, kafeteria, zine, pizina eta guzti.

Hangoxe etxebizitza baten bizi gura dabe Josuk eta Aintzanek. Haraxe ezkondu gura dabe.

Berrogeta hamar urte inguru ditu Josuk eta berrogeta bost inguru Aintzanek. Nahiko zahar eginda dagoz biak be ezkontzeko eta aita eta ama izan daitekez oraindino, bizkor ibili ezker, baina aitita eta amama ez beharbada, hil aurretik behinik behin. Baina ez dago sasoi txarrik ezkontzeko.

Bizilekurik ezin erosi izan dabelako dagoz ezkondu barik oraindino. Urteetan ibili dira pisu egoki baten atzetik, baina ezin izan dabe aurkitu eurek dauken diruaz erosteko egokirik. Hain zuzen be, oso karu egon dira pisuak orain arte. Eta orain karuago.

*Bilboko lekurik onenean,  
Indautxu aldean,  
etxe-orratz harrigarria,  
gaurkoa,  
sendoa,  
egokia.*

*Zeuk nahi izan dozun lekuan,  
Uritxo bat uriaren barruan.  
Aukerako etxebizitza alaiak  
merkeak,  
dotoreak,  
nasaiak.*

*Etorri,  
Ikusi  
ta baietz erosi!*

Egunkaria irakurri eta berehalaxe joan dira Josu eta Aintzane etxe-orratza ikusteko eta etxebizitza bat erosteko amesetan administratzailearengana. Eta honek lagundurik, goitik behera ikusi dabe etxe-orratz barri hori.

—Oso politak dira gero etxebizitzak! —Josuk.

—Ikusgarriak! Eta polita zer da gero ingurua be hainbeste lorategiz! —Aintzane.

—Ba, hara: Ikusi dozuenez, hogeta hamar pisu ditu guztira etxeak. Pisu bakotxean lau etxebizitza dagoz. Hamabosgarren etxebizitzak dira karuenak. Lekurik onenean dagoz egon be-ta. Hamabosgarren pisuko etxebizitzok hogeit mila pezeta balio dabe bakotxak.

—Eta handik beherakoek? —Aintzane.

—Handik beherakoek? Ba..., hamalagarren pisuko etxebizitzak hemeretzi miloe balio dabe bakotxak; hamahirugarrenekoak, hamazortzi miloe; hamabigarrenekoak, hamazazpi; hamaikagarrenekoak, hamasei; hamargarrenekoak, hamabost; bederatzigarrenekoak, hamalau; zortzigarrenekoak, hamahiru; zazpigarrenekoak, hamabi; seigarrenekoak, hamaika; bosgarrenekoak, hamar; laugarrenekoak, bederatzi; hirugarrenekoak, zortzi; bigarrenekoak, zazpi, eta lehenengokoak, sei.

—Eta hamabosgarrenetik gorakoak? —Josuk.

—Bardin. Hau da, hamaseigarreneko etxebizitzak hemeretzi miloe pezeta; hamazazpigarrenekoak, hamazortzi... eta abar. Geroago eta gorago, miloe bat pezeta merkeago etxebizitza bako-txa. Gorengoa, jakina, beherengoa legez, sei miloe pezeta.

—Etxe txikiegiak ditugu Bilbon. Hamar bat pisu gehiago edo balitu erosiko geunke, atoaan erosi be, etxebizitza bat. Baina ez. Parkatu baina, oraingoz ezin dogu erosi. New Yorken edo ezkonduko gara beharbada. Parkatu eta eskerrik asko. Goazen, Aintzane.

—Sotanurik edo ez dauka? —Aintzane.

—Bai. Baina berandu zatoze. Banku batek erosi ditu.



## “Kokoloori!”

- Hi!
- Zer?
- Ondo berba egin gero, e!
- Zer, ba?
- “Kokoloori!” esan dokenean, norgaitik esan dok? Nigaitik, eztok?
- Zer esaten habil hi?
- Horixe! “Kokoloori!” esan dok hik nigaitik.
- Higaitik?
- Norgaitik, ba?
- Bueno, baina... hi! Zer uste dok hik, ba? Heu bakarrik hazela Bilbo guztiko kokolo bakarra?



## *Alperrik da zarpil makilatua*

*Lan  
ta  
lan,  
ten  
ta  
ten,  
min  
ta  
min,  
jo  
ta*

*jo,  
su  
ta  
su...!  
  
Lan  
ta  
lan,  
goizetan  
lez  
gauetan,*

*gerretan  
eta  
baketan,  
lurpeetan,  
kaleetan,  
etxeetan,  
kaietan,  
uretan,  
suetan,  
urteen urteetan,  
gizaldien betetan!*



*Bilbo!*  
*lanean irasi,*  
*lanean hazi,*  
*lanean bizi*  
*ta*  
*lanean berezi*  
*zarean*  
*Bilbo!*  
*Nik ez dakit zuri kantuz*  
*zelan ekin.*  
*Nik badakit zuri oihuz*  
*zelan egin:*

*Bilbo,*  
*Bilbo!*  
*txinbo*  
*ta*  
*hurbilgo*  
*lanari tinko,*  
*ekinez zintzo*  
*ez zara hilgo!*  
*Bil, bil, Bilbo,*  
*lanaren Bilbo,*  
*betiko Bilbo!!!*

Gure olerkari Zubikaraik azaldu deuskunez, bertso mailukari adierazkorrez azaldu be, lantegi handi bat dogu Bilbo.

Erlauntza bat dala esango neuke nik. Erle langilez beterik dagoan erlauntza urduri bat. Baina, erlauntzetan egoten diran antzera, hainbat erlamando dago Bilbon be, batean bestean. Eta geroago eta gehiago dira inoren lepotik bizi ohi diran erlamando alper nagiak. Bai, nire adiskide batek esaten dauenez, “hamaika bizi da hemen be inoren kontura mila kontuz!”.

Zabalburun bizi dan... Parkatu. Noizean behin Zabalburuko anaiaren etxean lo egiten dauen *Zarpil* da lanik egin gabe bizi danetariko bat.

—Lanik egin gabe? Nahiko lanik izaten dot nik lanik egin gabe bizi izateko. Zer, ba? Erraza dala uste dozu ala? Jakina, lagun onak euki behar dira horretarako.

Mutilzaharra dogu *Zarpil*. Hirurogeiren bat urte izango ditu. Argal samarra da. Inor egotekotan haxe dago benetan *linean*.

Eginahalak egin zituen bere etxekoartekoek eta lagunek pizka bat zuzendu eitean baina, alperrik. Gure esaera zahar batek dinoanez “alperrik da Mari makilatua, berez ez bada bedeinkatua”.

Kalerik kale eta tabernarik taberna eskean ibilten da. Eta inon diranak entzun behar izaten ditu.

—Kale garbitzen edo, ez dago lanik hortik ala?

—Lana bai. Ugari egon be.

—Eta zergaitik zara hain ganorabakoa, ba? Egizu lan, eta...

—Ni lako alper ganorabakoa mantenitzeko lan? Merezi dauela uste dozu?

Gosez edo egarriz egoten da eskean dabilenean. Eta aurpegi tristez, holantxe ateraten dauelako dirurik gehien.

Ondo jantzita egon dan gizon lodikote batengana joan da eskean, diru bila, gaur arratsaldean.

—Egun bi daroadaz ezer jan barik eta diru apur bat behar dot. Mesedez eskatzen deutsut.

—Jan barik zagozala dinozu? Ez dakit, ba. Ez dozu itxura txarrik.

—Zuk hobe dozu.

—Hobe? Nahi neuke nik zure *linea*...

—Baina zuk zer uste dozu, ba? Zeuk jan eta ni loditu?

—Dirurik ez deutsut emongo baina, zatoz neugaz horra taberna horretara eta bokadillo bat erosiko deutsut.


—Ez, ez. Horixe ez.

—Zer, ba?

—Pezeta batzuk eskuratzeko zazpi bokadillo jan behar izan ditudalako gaur arratsaldean. Ez, ez. Eskerrik asko. Bokadillorik ez.

Zarpilen ateraldi barregarria, egiazko erantzuna entzunik, bost hogەرleko emon deutzaz honi gizon ezezagun bihozberak. Eta, agur egitean, hauxe esan deutso irribarrez Zarpileri:

—Zerbait edanda bokadilloak busti dagizuzan.



## *Emakumeen udaldiko ardurak*

Bilbotarrek, modu pizka bat izan daben bilbotarrek, aspaldidanik izan dabe udaldietan Bakiora, Lekeitiora, Castrora, Errioxako herriren batera edo beste nonbaitera, Bilbotik kanpora udako oporretan joateko ohitura.

Behin maiatza igaro ezkerro, emaztea eta umeak hartu eta hor doaz, udatiar bihurturik, itsas bazterreko hondartzaren batera euren gorputz margulak eguzki berotan baltzitu eta sendotzen edo kiskaltzen. Hor doaz Errioxa aldeko haize osasungarriaz euren birika kedarratuak garbitzera, euren bularrak nasaitzera.

Gizonak, jakina, Bilbora etorten dira astegunetan, eta Bilbon gelditzen dira lanean kale arteko galdatan, barriz be jaiegun bezperetan euren emazte eta seme-alabengana joan arte.

Udako astegun buruzuri luzeetan, ba, senarrak urian egoten dira eta bakarrik, edozein *Rodríguez* edo *Urliabeitia* bihurturik. Baina pozik egoten ei dira, emazteek dinoenetik behinik behin, solteruak legez solte ibiltzen diralako denporaldi horretan.

Arteagatarrak Labastidan egoten dira udaldia pasatzen. Eta Arteaga jaunaren emaztea udatiar barri baten lagun egin da aurten, Nekane deritxon berrogei urte inguruko andre baten lagun. Bilbotarra da hau be.

Arduraz dabil Nekane, bere gizonak ez deutsalara sekula telefonotik deitzen ez kartarik idazten eta.

—Badakizu. Bilbok fama txarra dauka horretan. Formala da izan nire gizona baina... Bera formala izan arren, lagunak sarritan...

—Bai. Horretan zuhur ibili behar dogu, Nekane. Lehengoan irakurri neban *Nonzebarri* aldizkarian estadistika bat eta harriturik gelditu nintzan. Badakizu ehunetik zenbat gizon dabilizan Bilbon, gizon ezkonduak esan gura dot, beste emakume batzukaz? Zenbat uste dozu?

—Ez dakit, ba. Asko?

—Ehunetik berrogeta hamar.

—E? Egia ez da izango!

—Bai. Ehunetik berrogeta hamar. Badakizu zer dan hori?

—Ez neban uste izango Bilbon holakorik gertatuko zanik.

—Bai, Nekane. Lehendik be sarritan entzunda neukan hori. Baina lehengoan aldizkarian irakurterakoan...

—Oraintxe bai jarri nozula arduratan eta urduri, eta ez dakit zer egin. Pozik egoten dala uste dot nire gizona Bilbon ni barik. Pozegi...


—Neu be, hona Labastidara etorten hasi ginanean, holantxe egoten nintzan. Arduraz eta beldurretan beti. Baina laster konpondu neban.

—Bai? Zelan?

—Errez-errez. Egun baten, hona etorri zanean, hauxe esan neutsan: “Kartarik idazten ez badeustazu, eta egunero idatzi be, maletak egin, umeak hartu, eta lehenengo autobusean Bilbora noa barriro, etxera, zeugaz egotera. Entzun dozu?”

—Eta?

—Ba egunero bialtzen deustaz orain karta bi edo hiru.



## *Gora ta gora*

Aberasturi jaunak *Berebil* garajea euki dau konpontzen bere kotxea.

Konpondu deusela ikusi ondoren, kontua ekarteko eskatu deutso enkargaduari.

Enkargadua ugazabaren despatxura joan da berehalaxe.

—Kontua eskatu dau Aberasturi jaunak.

—Zortzi mila eta bostehun eta berrogeta hamar pezeta da izan. Baina bederatzi mila jarriko dogu, pizka bat biribilduteko. Edo... biribilegi agertu ez daiten, bederatzi mila hirurehun eta berrogeta hamazazpi pezeta eta erdi jarriko dogu.





## *Txikito baten balioa*

Zorionez edo zoritxarrez Bilbo txikiteroz beterik dago. Zorionez, alkartasun eta adiskidetasun bat sortzen dauelako txikiteroen eguneroko ibilaldi eta alkarrizketak. Zoritxarrez, alkoholizatu egiten dauelako gizona eta emakumea eguneroko txurrut etengabeak, eta poltsikoetako dirua urtu.

—Zer dinostazu? Egia ez da izango?

—Bai, gizona!

—Oraindino karuago?

—Bai.

—Handiagorik...!

—Datorren domekatik hasita, hamabost pezeta txikito bakotxa.

—Lehen merke egon balitz be...



—Gauzak ondo begiratu ezker, merke da halan eta guzti be.

—Merke?

—Oso merke.

—Zagoz isilik!

—Isilik zergaitik? Egia da. Kontuak ondo atera ezker, merke be merke da txikito bakotxa hamabost pezetan.

—Hona hemen gaineko laukoak! Baso ipurdi bat ardao hamabost pezeta, merke? Zoratu egin jatzu ala?

—Baina baso ipurdi bat ardao bakarrik ez deusue emoten tabernetan hamabost pezetagaitik. Beste gauza asko be emoten deusuez gainera.

—Beste gauza asko? Zer?

—Begira: Lehenengo eta behin, aterpe ezku bat emoten deusue. Argia be bai, gaueko orduetan. Kalefazioa neguan, bentiladora udan. Salda gozoa batzuetan, haginatarako zotzak, eskuak, ezpanak edo betaurrekoak garbitzeko paperezko serbilletak. Metxeruentzako gasolina apur bat. Alkondara edo frakak edo trajea edo nikia loitu badozuz ardao tantaz, mantxa hori behingo baten kentzeko ardao zuri pizka bat edo limoi zati bat edo ogi mamin zati batzuk emoten deusuez. Txokorra lotzeko papela, biztuteko sua. Baso bete ur aspirina edo bikarbonatoarekin. Ardao garraturik edo zaborraz beterik badago edo euliren bat jausi bada basora, beste txikito bat ateraten deusue atoan...

—Kontxo! Egia da.

—Baita mahai bat, jarlekua, telebista, irratia, egunkariak, kartak, dominoa, partxisa, ajedreza, hautsontziak, paper garbi bat zerbait idazteko, boligrafoa, komuna, ipurdia garbitzeko papera, eskuak eta aurpegia garbitzeko lababoa ur bero, hotz eta jaboiarekin, uleak orraztuteko espilua... Eta gainera adiskide asko, neskabila politak, enkarguak itxi edo hartzeko era, telefonoz berba egiteko erreztasuna, munduko barririk gehienak jakiteko era, ipuin, txiste, jazoera eta kontu barregarriak entzuteko era, alkarrizketa onuragarria egiteko era... Zer gehiago nahi dozu, ba, hamabost pezetagaitik?

—Benetan! Baina... taberneruren bat zara zu ala?



## *Beste lekuren baten*

Bodetako bazkarietan ezezagun asko izaten ditugu bazkal aurretik. Ezkonbarrientzat ez. Hareentzat ez da ezezagunik egoten. Baina gaisetiko mahaikideentzat bai.

Bazkal ondoren, oster, txanpanaren eraginez edo, lagun egiten gara bazkalkideok.

Gaur hiru boda egon dira *Janedan* jatetxean, eta hango soinu eta dantzaketak ez dau azkenik. Baina danak ez dira dantzan ari. Alkarrizketan ari da bikote bat bazter baten.

—Zure aurpegia oso ezaguna egiten jat. Bai. Beste lekuren baten ikusi dodana badakit. Ziur.

—Ez dakit, ba, zelan ikusi ahal izan dozun nire aurpegia beste lekuren baten, oraintxe daukadan lekuan eukiten dot beti-ta.



## *Bilboko alkate izateko aukera*

Alkatetzarako hauteskondeak zirala-ta, Bilboko *Botxoa* egunkariak galdera hau egin eban: “*Bilboko alkate egiten bazaitue, zer egingo dozu Bilbon?*”. Erantzunik onenak sarituak izango ziran.

Handik egun gitxi barru, erantzun asko heldu ziran egunkari horren idazlaritzara. Eta danetarikoa.

Ez naz gogoratzen zein izan zan saritua, baina hona hemen argitaratu ziran erantzun batzuk:

“Bilboko alkate egiten banabe, Bilboko botxoa lurrez beteko dot, lehenengo eta behin, eta gero Bilbo barri bat egingo dot, Pagasari eta Artxandaren erdian.”

“Separatista, komunista, sozialista, protestante, ateo, masoi eta ezkertiar guztiak kartzelara sartuko neukez. Fulana etxeak, gau klub-ak, zine txarrak eta boite-ak zarratu. Ikurrina guztiak eta aldizkari lizun ganorabakoak erre. Abade, fraile eta monjei sotana eta habitua jantziarazo. Garizuma bi jarri urtero, eta abar, eta abar.”

“Bilboko alkate izango banintz, euskera ikasiko neuke ondo, lehenengo eta behin, eta gero gerokoak.”

“Bilboko alkate izan ezker, Bilboko alkate izango nintzateke, Bilboko alkate eta ez madrildarren zerbitzari.”

“Monja bat izan al daiteke alkate?”

“Zeuok ikusiko dozue, baina ni ezin naiteke Bilboko alkate izan, ezelan be, Bilbo osoa ume-txo baten menpean egongo litzatekeelako. Hain zuzen be, niri neure emazteak agintzen deust, eta nire emazteari gure seme txikiak, eta... ez, ez, ni ezin naiteke Bilboko alkate izan.”

“Bilboko alkate ni? Zoratu egin zarie ala? Ni gormutu bat naz.”

“Bilbotar guztiak nire zerbitzari izan ondoren, bilbotar guztien zerbitzari izango nintzateke.”

“Neure bizitza guztian lapurretan baino besterik ez dot egin eta, zer egingo neukela uste dozue, ba, Bilboko alkate izateko aukeratuko banindue?”

“Pelikularik berdeenak euskeraz jarriko neukez, alemanezko subtituluakaz.”

“Bilbora sartzeko eta Bilbotik urteteko, helikopteroak jarriko neukez, asko jarri be, Bilboko alkatetzarako hautatuko banindue. Eta gainera zulakailuak ekarriko neukez, zementoan zuloak egin eta zuhaitzak landatzeko. Besterik? Gorbeia haizea saltzeko dendak jarri, plaza guztiak parketu eta Bilbo zaharra Venezia bihurtu, arratoiak behin betiko ito daitezkan eta bilbotarrek urian bertan arrainketan egin dagien.”

“Lau katuk bakarrik ezagutzen nabe-ta, zelan uste dozue alkatetzarako ni aukeratzea?”

“Bilboko alkate izango banintz, euskaldun barriei bostehun bana mila pezetako saria emongo neuskie.”

“Nik Negurira eroango dot Bilbo, alkate egiten banabe. Edo mendi batera. Hain zuzen be, ez dakit nik zergaitik ez dituen egiten holako uriak kutsadurarik ez dagoan lekuetan.”

“Dirurik ez daukat, etxe onekoa ez naz, eskoitiarra be ez, abizen ospetsurik be ez dot, karre-rarik be ez... Egin galdera hori, mesedez, beste bati.”

“Nik zera egingo neuke: zereko zera zerean zertu.”

“Nik ezer be ez.”





## *Gorreria*

Bilbo zaharreko taberna zahar baten dagoz zahartxo bi. Mahaian jarrita, eztul eta eztul. Horma bat baino gorragoak dira.


—Zer ordu ete dogu?

—Euria geratu barik. Hau da denpora modua!

—Bai, denpora asko emon dogu hemen igarri barik.

—Hiru-lau egun daroaz bardin-bardin.

—Beranduago dala uste izan dot.



## *Bilbo euritan*

Euria da. Bilboko euria. Baina ez zirimiria. Kutsadura guztiak garbitzen dituan euri nagusia, euri lodi mamintsua.

Euria da. Geratu barik. Zaparrada itzela!

Taxiak, hara eta hona, inoizkorik beteen eta bizkorren dabilta kale arteko erreketan.

Jentea guardasolpetan doa, edo geldi dago aterpeetan, euriari begira, noiz atertuko itxaroten.

Euria da. Euria eta euria. Bota ahaleko euriak.

Kalean zehar doa Enrike, bizkor, taxien antzera. Baina euritako barik doa, busti-busti eginda.

Denda batera sartu da. Bere lagun baten janari-denda batera.

—Kaixo, Enrike! —esaten deutso bere lagunak.

—Egunon! Hau da denpora modua! Bilbon inoiz euririk egin ez baleu be...



- Lehengo astean itxi zeustan guardasolaren bila etorri zara?  
—Bai. Hemendixe igaro naz-ta, bide batez...  
—Oraintxe behar dozu, ezta?  
—Hemen badaukazu...  
—Badakizu zer pasatzen dan? Lagun bati itxi neutsan atzo.  
—Orduan...  
—Itxaron. Eskatu egingo deusat.  
—Ez, ez.  
—Bai, gizona. Oraintxe bertan deituko deusat.  
—Egia esateko, niri neuri ez deust ardura handirik baina, guardasol horren jabeak eskatu egin deusala-ta, ahalbait arinen eroateko berari esan deust niri itxi eustanak.



## *“Gaur egun ona, e?”*

Zintzoa beti izan da alperren astoa. Eta, alderantziz, gure esaera zahar batek dinoanez, “dongoak mundua bere”.

Txindorra eta kukuaren antzera dira gizartean zintzoa eta dongea. Zintzo gizajoa dongearen umeak hazten beti. Eta erru, ezbehar, nahigabe eta zoritxar guztiak zintzoaren lepora beti.

Leku guztietan dagoz gizon zintzoak, berakatzat baino finagoak diran gizon leialak, danen zerbitzari diran gizon langile porrokatuak, edozertarako prest dagozan borondate oneko gizonak, jatorrizko pekatu barik jaiok dirudien gizon zintzoak.

Leku guztietan dagoz eta alde eta aldi guztietan egon dira, eta egongo be bai, dudarik gabe. Bilbon be bai.

Begoña aldean bizi da bat. Gurutz Inurria da. Bere emazte, seme-alaba eta aitagarreba eta amagarrebarekin bizi da. *Diruetxe* bankuan egiten dau lan, eta hogeta zazpi urte daroaz han lanean.

Goizean goizetik jagi eta, txiri-txoro, zertan edo hartan, egun guztian ibiltzen da lanean Gurutz, inurri baten antzera.

Beti izan da zintzoa. Baina ezkondu zanetik eta hona askoz zintzoagoa da. Zintzoegia, finegia, gizajoegia. Barregarri izaterainoko zintzoa.

Nahiko zahar eginda ezkondu zan. Urteetan ebilen bere atzetik, bere fraketatik eskegita legez, Begoñako eleizako sakristauaren alaba itsusia. Eta ibili eta ibili, ekina okerra da-ta, azkenean lortu egin eban Ikernek (hauxe da bere emaztearen izena), lortu Gurutz maiteagaz ezkontzea. Eta, jakina, ezkondu ondoren, Gurutzen etxean oiloa oilar.

—Ez dakit nik, Gurutz, zer pasatzen jatzun zuri aspaldian. Astelehenean pozik jan zenduzan lentejak; martitzenean be oso pozik; eguaztenean pozago; eguenean platerkada bi jan zenduzan, eta gustura jan be, eta gaur, barikuan, ez dakit nik zergaitik, ez dozula gura lentejarik dinozu. Ez dot ulertzen.

—Nire atzetik eperdia galdu beharrean ibiltzen zinanean ulertuko zenduan. Orduan bai.

—Baina, gizajoa...! Nor ibili zan zure atzetik, ba?

—Zeu, nondik edo handik ni harrapatu arte.

—Nire kokolotzar handia! Ni zure atzetik...?

—Atzetik edo... Arraterak be ez dira txorien atzetik joaten, baina noizean behin harrapatu egiten dabe txoriren bat edo beste.

—Zagoz isilik eta jan egizuz lentejok!

Eta Gurutzek, bakegaitik, nahi eta nahi ez, jan egin behar lentejak. Eta zenbat holako! Telebistan, poz-pozik futboleko partidua ikusten dagoanean, klak, bigarren edo hirugarren kanelan emoten daben programa bat ikusi gura izaten dabe emazteak edo seme-alabak edo aitagarrebak eta amagarrebak, eta Gurutz partidua ikusi barik eta zigarrorik be erre gabe, amagarrebak asmena dau-ta.

—Ez zeunke bape erre behar, etxerako gastua baino besterik ez da-ta. Gainera kaltegarri osasunerako. Ez zenduan esan, ba, lehengoan, gehiago ez dozula erreko?

—Gehiago ez dot erreten, lehengo beste baino.

Holako egun batean, garrasika eta eztulka, Athletic ikusi barik egon behar ebalako, komunera joan zan, eta txiza egiten egoalarik, doministikun egin eta plaust! beheko hagin postizuak komunera. Eta hatzamarrakaz sudur zuloak zarratu ondoren atera zituanean... erdi bi eginda egozan. Gizajoa!

Jaiegunetan kanpoan bazkaltzen dabe gehienetan Gurutzek eta beronen familiak. Eta mutikotxoari oinetakoen kordela soltau jakola, amaginarrebari beste jarleku apatzago bat ekarri behar deusala, mutikotxoak lohitu egin dauela alkondara barria, amaginarrebak gana txarra daukala, neskatotxoari buruko txoria soltau jakola, aitaginarrebari komunera lagundu behar deusala, neskatotxoak apurtu egin dauela muñeka barria, aitaginarrebak eztula daukala..., ume txikiak eta handiak zaintzen Gurutz egunik gehiengan.

Udako jaiegunetan mendira edo hondartzara joaten dira kotxe txatxar baten estu-estu eginda, lehenagoko sardina zaharrak bezala. Orduan bai izaten da gurutze bat egun guztia Gurutzentzat: etxean itxi dabela ahaztuta mutikotxoaren baloia, kotxea ez dabilela ondo, ezin dauela igon aldatsa, gasolina apur bat hartu beharko dala, mutikotxoa txizalari dala, neskatotxoa be bai, amaginarreba larritu egin dala, aitaginarrebak tripetako minak dituala, ataskamentua sortu dala, Koka-Kola bat nahi dauela neskatotxoak, mutikotxoak be bai, honen ordutarako egon behar dauela Ikernek ez dakit non... Etxera heltzerakoan itota heltzen da Gurutz... eta tresnak garbitu behar afaldu ondoren. Bai, Ikerne gaixotia dala-ta, sarritan garbitu behar izaten ditu tresnak amantal luze zabal bat jantzita.

—Ikerne! Ez noa gehiago tresnarik garbitzen.

—Ez? Zer dala-ta?

—Gure seinak *ama* deitu deustalako hiru-lau aldiz.

Halan eta guzti be, behin baino gehiagotan garbitu behar izango ditu aurrerantzean be. Zintzoegia izatearen kontuak!



Dendarik denda erosketak egiten be ibilten da Gurutz. Eta gaur goizean guardasol batzuk erosteko esan deutso Ikernek ohetik.

—Bazoaz lanera? Bokadillo bat egizu, gero hamabietan jateko. Hor dispentsan daukazu txorizoa eta sukaldeko mahaietan ogia. Euria da, ezta? Negua be badator eta, guardasol batzuk erosi behar dozuz. Eutsi dirua... Niretzat guardasol berdeska bat hartuko dozu eta gorriskatxo bat neskatotxoarentzat, eta loratxo batzuk edo baditu, hobeto. Norentzat diran esan eta dendan bertan esango deusue zein dan egokiena. Zeuretzat be hartu egizu bat, zeuk gura dozun modukoa. Baina karuegiak ez erosi gero! Aita eta amarentzat be erosi beharko dituzu, baltzak edo. Mutikotxoak ez dau behar oraindino baina, ikusten badozu holako guardasol merke txikitxoren bat, berari egoki jatorikon bat, erosi.

Bota ahaleko euriak izan dira Gurutzek etxetik urten dauenean. Autobusean joan da lanera. Bilbon bertan ez dau inoiz be kotxerik erabilten. Oinez edo autobusean.

Zelako guardasolak erosi pentsatzen joan da bide guztian. Eta, guardasolak buruan izan ditualarik, konturatu gabe, alboko gizon baten guardasola hartu dau autobusetik jaisterakoan.

—Zu! Neure guardasola da hori! —esan deutso gabardina barri ederdun gizon serio batek.

—A, bai, bai! Badakit. Parkatu! Parkatu! Ez naz konturatu. Neurea dalakotan hartu dot. Parkatu! —tomatea baino gorriago eginda Gurutzek.

Ordu bi eta erdietan lanetik urten, pintxo pare bat barra baten hartu, eta dendarik denda ibili da guardasolak ikusten. Eta lau eta erdiak inguruetan denda batera sartu eta erosi dau berehalaxe guardasol bat beretzat. Gero, beste denda baten beste bat mutikoarentzat. Hurrengo, bere emaztearentzat eta alabatxoarentzat erosi ditu hirugarren denda baten. Eta, azkenez, denda zahar baten, aitagarreba eta amagarrebarentzat.

Hatan horretan, berandu egin jako, eta iluntzea izan da etxerantz abiatu danean.

Autobusa hartu, eta badoa Gurutz Begoñarantz, poz-pozik, guardasol txorta besartean hartuta.

Autobusetik jaisterakoan, lepoan jotzen dau gizon batek. Goizeko gabardina barri ederdun gizon serioak. Guardasol txortari irribarretxo batez begiratu eta badinotso Gurutz:

—Egun ona gaur, e?



## *Abade frantses baten sermoia*


Bilboko Mikel Garikoitz santuaren eleizako parrokoa Frantzia aldean urte asko egindakoa da. Gizon jatorra eta jakituna, benetan. Eta euskaltzale gartsua.

Frantziako abade-lagun bati euskeraz be irakatsi eutsan, han egon zanean. Eta, hain zuzen be, lehengo domeka baten egon zan Bilbon abade frantses hori, eta berak emon eban hamabietako mezea, Mikel Garikoitz santuaren eleizan, eta euskeraz emon be. Sermoia be euskeraz egin eban.

—Ondo ulertu deutzazu sermoia gaurko abade frantses horri? —galdetu eutsan, mezatik urte-eran, gizon batek beste bati.

—Tira! Dan-dana ez baina, berba asko bai. Ez neban uste izango nik frantsesa hain erreza zanik.





## Batzar Nagusia

Apirilaren 26a. Komunikabideetako erakundeen eguna. Urteroko Batzar Nagusia. *Basarte* unibersidade barrian. Hementxe dagoz telebistako, irratietako, egunkarietako, aldizkarietako ordezkariak.

Nik ez dot ia inor ezagutzen. Izan be, barria naz batzar honetan. Umorezko aldizkari bat sortu gura dot eta, hori dala-ta, baimena eskatu, eta hemen nago.

—Nor izan da hizlari hori? —galdetzen deusat nire ondoan dagoan monjatxo bati.

—Ez al dozu ezagutzen?

—Ez, ba! Ni lehenengoz nator batzar honetara.

—Ba hori jesuita izandako bat da, *Orain* aldizkariaren zuzendaria. Gure konbentuko nire monja-lagun bategaz ezkondata dago. Diputadua be izango ete dan laster, dinoe.

—Eta haren ondoan dagoan bizartsua nor da?

—Frantziskotar bat. Nafarroako Herri Irratiaren zuzendaria izandakoa. Orain egunkariaren baten egiten dauela lan uste dot. *Geurean* edo holakoren baten.

—Eta gartsu abestuten dauen gazte taldetxo hori?

—Abadegaiak dituzu. Telebistako “Mundu Berria” programa antolatzen dabe. Bat, hori ezkeretik hasita lehenengo dagoana, komunisten ejekutibakoa dala entzun dot.

—A! Bai, badakit nortzuk diran. Eta ondoan dauken andra horrek be, oker ez banago, telebistan egiten dauela lan uste dot. Ez?

—Jakina. Zorione Pertxeta dozu hori. Gipuzkoarra. Monja izandakoa hori be, karmeldarra edo. Eta ba al dakizu nor dan han mahaiburukoekin dagoan betaurreko balzduna?

—Fraile antza dauka harek be.

—Ez, ez da frailea. Abadea da, kalonjea. Lapurdiko *Erran* egunkariaren zuzendaria. Eta bere ondoan dituan biak, bata, ezkerreko aldean dagoana, Zuberoako *Sarri* aldizkariaren sortzailea da, urte askotan abadegai izandakoa, eta bestea, eskoi aldean daukan andrea Arabako Gasteiz irratia-ko lokutore bat da, teresiana bat.

—Bilboko *Botxo* egunkariaren zuzendaria da haren ondoan dagoana. Oraintxe konturatu naz nor dan. Urte askoan neugaz batera monasterioan egondakoa da-ta... Zu! Baina... hemen batera eta bestera zerbitzen ari diran kamareruak ez dira abade edo fraile edo holako zeozer izango, ezta?

—Zortzi urte egin nituan nik be konbentu barruan —gure ondotik irribarrezka doan kamareru batek.

—Nire aita eta ama ez dagoz hemen? —kanpotik arineketan eta arnasoska sartu dan muti-kotxo batek.



## *Xabier Lauburu*

Bilboko matematikorik onena ei da Xabier Lauburu. Izan behar, harek daukan burutzarra ikusi ezkeru.

Leku askotan ikusi dodaz buru handiak, era guztietako buru handiak. Baina Laubururen buruaren neurriko bururik ez dot inon be ikusi. Hurrik emon be ez!

Esaten dabenez, jaio zanean, zesarea bi egin ei eutsezan bere ama Zesareari.

Txapel handi bategaz ibiltzen da beti, matematiketako dozena erdi liburu mardul eroateko moduko txapela, eta harriturik begiratzen deutse kalean danak.

Oso gizon alai da. Baina gaur tristuraz beterik doa unibersidadetik etxerantz. Burukomina dauka. Burukomin handia.

Kafetxe batera sartu da.

—Aspirina bat, mesedez! —Lauburuk.

—Bat bakarrik...? —kamareruak.



## *Mutil bat ala neska bat?*

*“Hainbeste denporatan gaixorik txarto egon ondoren, atzo arratsaldeko sei eta erdietan hil zan, Sendategi klinikan, gure mediku ospetsua izan genduan Osabide jauna. Laurogeta lau urte zituau, eta...”*

Telebistak barri hori esan ebanean, harriturik geratu zan Bilbo.

Mediku entzutetsu asko egon dira Bilbon. Baina Osabide lakorik bat be ez.

Bilbo guztiak ezagutzen izan dau. Eta andrazkoek batez be. Hain zuzen, andra ezkondu gitxi izango dira Iparragirre kaleko haren kontsulta-gelan egon bakoak. Eta Bilbokoak bakarrik ezeze, beste leku askotarikoak be egon dira haren kontsulta-gelan. Hain izan da ospetsua!

Tokologoa izan da Osabide. Baina emagintzan maisu bat izan arren, beste gauza baten bitartez lortu izan dau bere entzute ona. Bai, igarle bat izan da jentearentzat, horixe, igarle bat. Izan be, oraindino inork igarten ez dauen gauza bat igarten izan dau, eta beti igarri be.



Emakume bat umedun gelditzen zanean, behingo baten igarten eban Osabidek jaiotekoa mutil bat ala neska bat izango zan.

- Inork be ez daki zelan igarten eban.

Umedun geldituaz batean, emakumeak harengana joaten ziran arineketan, euren sabeletan sortu barri egoana mutil bat ala neska bat zan jakitera. Baina hain jente asko egoten zan ezkerro begira, telefonoz edo, bertara joanda edo, aurretik eskatu behar izaten zan kontsultarako txanda.

Pultsua hartzen eutsan, lehenengo eta behin, emakumeari. Eta zirriborro batzuk egiten ebazan orri baten, misterio pizka bat emoteko gauza zail hari, hitz ulertezin batzuk ahoskatzen zituan bitartean, azti edo sorgin baten antzera.

Hurrengo, tentsinoa hartzen eutsan ordurako gehienetan liluraturik egoten zan emakumeari. Eta, ostera be, boligrafo koloretsu nabarmenez, zirriborroak egiten ebazan, zenbaki ezbardin mordo bat ahominean erabilten zituan bitartean, tentsino hartze hori misteriotsu bihurtuz.

Gero, begietara begiratzen eutsan emakumeari, ezkerreko begira batez be, aztikeria edo sorginkeria giroa galdu ez eiten. “Neska, mutil, neska, mutil, mutil, neska, mutil, neska, mutil, mutil, neska, neska...”, geratu barik esanez.

Azkenez, mahaiari jarri, emakumeari be jarleku bat hartzeko esan, eta galdeketa etorren: nor zan, nongoa zan, noiz jaiotako zan, eta noiz jaiotako zala uste eban, gitxi gorabehera, umea, seindun izateaz pozik baegoan, lehenengo bazan... eta abar.

Bien bitartean, Osabide idatzi eta idatzi.

—Zer izango da Osabide jauna?

—“Neska, mutil, mutil, neska, neska, mutil, neska...”

—Nik gura, neska bat gura neuke baina...

—Lehenengotan neu be neska bat izango dala uste izan dot, baina mutil eder bat izango dozu. “Mutil, neska, neska, mutil...” Bai. Ez dot uste oker atera dodazanik kontuak.

—Eskerrik asko.

Erantzuna, jakina, ez zan beti bardina izaten. Batzuei “mutil bat izango dozu” eta beste batzuei “neska bat izango dozu”, erdiei erantzun bat eta beste erdiei beste bat. Baina beti ahomine-

an “neska, mutil, mutil, neska, neska, neska, mutil, mutil, mutil, neska...” etengabeko marmarrean.

—Eta igarri egiten eban. Beti egin be.

—Ez dago hori igarri daikean amaren semerik. Horixe ez! Benetan igarten dauela uste dozu ala? Ka! Nik ez dot sinesten.

—Nik be ez.

—Bai zera! Igarri zera egingo dau!

—Pentsatu egitea be...

—Hori, ba!

Alperrekoa zan gizonezkoen ekina. Emakumeak, haurdun gelditu ondoren, Osabiderengana zuzen, igarri egiten ebalako. Igarri. Beti. Baina zelan? Hori ez ekian inork.

Neuk be ez neban jakingo hil aurretxoan berak isilpean bere sekretoak agertu ez baleust. Hara: Emakume bati “Mutil bat izango dozu” esaten eutsanean, “Neska bat izango da” idazten eban bere koadernotzar gorrian, eta “Neska bat izango dozu” esaten eutsanean, “Mutil bat izango da” idazten eban. Bat esan eta bestea idatzi. Horixe egiten eban beti. Eta horixe izan zan misterio guztien ardatza.

Azartatu egiten ebanean (eta askotan azartatzen eban, zorionez), ez jakon inor be joaten protestaka. Zertarako? Joatekotan be, eskerrak emoten eta erregalotxoren bat eroaten joaten jakozan.

Azartatzen ez ebanean, ostera, orduan izaten ziran kontuak! Baina nasai, estutu barik hartzen zituan Osabidek umetxoa besartean hartuta hasarreka etorten jakozan emakumeak.

—Ez. Oraingoan ez dozu igarri.

—Ez? Baleiteke.

—Ba, hara: “Mutil bat izango da” esan zeustan. Ziur nago. Eta neska hau izan da.

—“Mutil bat izango da” esan neutsun?

—Bai.

—Bai gero? Badakizu, holako momentuetan...

—Badakit, bai. Baina...



—Zelan dozu izena?

—Garbiñe Madariaga.

—Zein egunetan etorri zinan hona?

—Urtarrilaren hamarrean izan zan, nire senarrak izterra apurtu eban egun beratan.

—Ikusi daigun ia... Madariaga, Madariaga... Hemen dago. Ba, begira. Irakurri zeuk nahi badozu. “Garbiñe Madariagak neska bat izango dau” jarten dau hor. Argi dago, ezta? Zeuk egin dozu huts.

—Bestera egon naz, ba. Bai. Neuk ulertuko neban txarto orduan.

—Ni ez naz gogoratzen baina, hemen argi dago. Eta hau ez da atzo edo gaur egindakoa. Hona lehenengoz etorri zinan egunean idatzitakoa da.

—Bai, bai; neu egongo nintzan oker. Parkatu, eta eskerrik asko.

Eta igarlea igarle, goian bego Osabide.



## *Semaforoen legea*

Semaforoak lehenengoz jarri zituenean, gotzain gogor bat egon ei zan eleiz agintari legez Bilbon.

Erlijino gauzetan, politika gauzetan, ohitura gauzetan, euskal gauzetan..., eragozpen handiak ipinten ei zituan. Hau galerazo, hori debekatu, bestea eragotzi..., holan ibiltan ei zan beti.

Hori zala-ta, semaforoen legea asmatu eben abadeek:

Argi gorria dagoanean bizturik, geldi. Anbarra dagoanean, kontuz. Berdea dagoanean, aurrera. Barrero be gorria dagoanean bizturik, geldi. Baina, egon eta egon eta argi gorria aldatzen ez bada, aurrera, aberiaturik dago semaforoa-ta.



## *Kutsadura kutsaduraren gainean*

*“Pirrit, porrot, purrut, tirrit eta tarrat,  
kalibre desberdina baina jenero bat.  
Rau, rau, rau, rak eta plau, hau dok gurutzea:  
jaten dogun guztia haize bihurtzea!”*

Ez. *Pirrit* ez. Atso zimelarena da hori-ta. Eta neska bat zan.

*Porrot* be ez. Agura zimelarena da hori-ta. Eta neska bat zan.

*Purrut* be ez zan izan, ba! Izan be, mutikotxoarena da hori. Eta *tirrit* be ez, neskatotxoarena da hori-ta. Eta neska bat zan.

Gazte edo sasoiko gizon indartsuen *tarrat*, *rau*, *rak* edo *plau* be ez zan izan. Ez, ez; bai zera! Beste hots bat izan zan nire aurreko butakan egoan neska gaztearena.

Hots barri bat izan zan zineko ilunetan eta isiletan nire aurreko neska gazte polit ederrak sorturikoa. *Puuutz?* Ez. Putz lasaia ez zan izan. *Piiit?* Ala *puiit?* Ala *piuuut?* Ez dakit ziur. Globo baten barruan estu-estu dagoan putzak pitorroa kentzerakoan egiten dauen antzeko zerbait izan zan.

Eztulka hasi zan berehalaxe nire aurreko neska gazte hori. Eztatiaz be hots bardina sortu nahi eban. Hots bardina edo bardintsua bai, beharbada, baina usaina ez!

Hots bardintsuak sortu, eta oraindino hobeto disimulatzeko, bila hasi zan, zeozeren bila butakan eta butaka azpian. Baina bere orpora apuntau arren, nire surra jo eban eta, bere sorbaldan kontuz-kontuz ikutu eta hauxe esan neutsan: “Zu, neska! Zuk galdu dozuna hemen nire surrean dago, e!”.



## *Neskatila zuhurra*

Neskatila polit eta eder bat doa kalean zehar, bere politasuna eta edertasuna ezin gorderik, eta mutilen begiak bizkorturik.

Mutil irribarretsu bat joako bere atzetik.

Geroago eta arinago eta gorriago neskatila.

Berba eta berba mutila, lorak bota eta lorak bota.

Neskatila isil-isilik, geroago eta estuago.

—Politak eta ederrak ikusi ditut sarri. Baina zu lakorik inoiz be ez. Zergaitik zoaz horren isilik, ba? Eta hain arin zer dala-ta? Jan egingo zaitudala uste dozu ala? Egia esan, zuk gura izan ezkeru, jan be egingo zindukedaz, piruleta bat jaten dan modura. Baina... ez deustazu ezertxo be erantzuten, pinpirin hegazkari horrek? Mutua zara ala, larrosatxoan antzera? Mutua izanda be



pozik egingo neuke berba nik zugaz. Eta aurrez aurre berba egiten lotsa bazara, telefonoz egingo dogu. Baderitxazu?


—Ondo dago...

—A! Ez zara mutua, e! Zure etxeko telefonoaren numeroa esaidazu, ba, mesedez.

—Telefonoetako listinean dozu.

—Baina zure izen-abizenak jakin behar ditut horretarako.

—Ba listinean bertan daukazuz.



## *Ondo bai baina...*

Basurtuko ospitalearen aurrean egoan Joantxu Izkirimiri, autobusari itxaroten.

Halakoren baten, Mercedes gorri dotore ikusgarri bat geratu zan haren ondoan. Turistaren batzuk ziran. Madril aldekoak, antza, *M* eukan kotxeak matrikulan-eta.

Gizon bat eta neska bat ziran. Berrogei urte inguru izango zituan gizonak. Hamazortziren bat haren ondoko neska ulegorri galantak.

Joantxu Izkirimiriren begiak kotxean eta kotxeko neskatoarengan egozan, eta ikusi be ez eban egin autobusik.

Mapa bat eban eskuetan Zorrotzarantz joian bikote madrildarrak.

—Hau ete da Begoña? —galdetu eutsan gizonak katu eme baten plantak egiten zituan emazte edo zana zalakoari.

—Ez dot uste. Hau Atxuri izango da —erantzun eutsan Joantxuren begietan egoan emakume zoragarriak.

—Ez ete da gero Enekuri?

—Ez dakit, ba.

—Zu, gizon! Mesedez! —bere bigoterrepeko hagin zorrotzak erakutsiz, gizonak Joantxuri.

—Bai. Zer?

—Ondo noa hemendik Bartzelonarantz?

—Ondo... bai. Bartzelonarantz... ez.



## *Bestelan ondo baina, ez?*

—Kaixo, Jose Mari! Aspaldiko!

—Hola, Santi!

—Ta?

—Ba!

—Ene! Zer egin dozu bekokian, ba? Golperen bat.

—Bai. Kotxeaz beste kotxe bat jo eta...

—Bai zera!

—Jainkoari eskerrak, neuk ez neban min handirik egin.

—Eta kotxea?

—Aurre guztia mailatuta, ezertarako gauza ez dala.

- Ahor, ba!
- Baina kotxearena baino txarragoa da dendakoa.
- Dendakoa?
- Ez dakizu ezer ala?
- Ez.
- Periodikuan be etorri zan, ba.
- Bai, etorriko zan. Baina nik ez dot periodikurik irakurten.
- Lapurretan egin eusten erlojerian lehengo astean.
- Gauza asko ostu eutsuezan?
- Diru, erloju, pitxi eta handik hortik hemendik, bosten bat miloe.
- Kontxo!
- Bai. Abisau neutsan poliziar berehalaxe. Baina oraindino...
- Eta ze asmo dozu orain? Barriro zabaldu erlojeria?
- Diru barik?
- Egia da. Lagunduko neuskizu gustora. Baina diruz oso txarto nabil neu be.
- Eskerrik asko, Santi.
- Eta gaixorik egoan seme zaharra, osatu al zan?
- Osatu? Bai zera! Lau urtetan dago gaixorik gizajoa, eta geroago eta txarrago dago. Beste alde batetik, beste semeak alde egin deust etxetik, Holanda aldeko kantante bategaz.
- Jesus! Eta emazteak zer dino?
- Ez dakizu ezer ala?
- Jakin zer?
- Dibortzioa eskatu deust.
- Holangorik! Modazaleak izan dira beti andrak eta!
- Ba holantxe nago.
- Bestelan ondo baina, ez?
- Bai, bai. Bestelan... oso ondo.





## *Txuleta handia eta txikia*

—Hartu!

—Hartu zeuk!

—Hartzeko, ba, gizona!

—Bueno!

—Zuk be, badaezpada, txuletarik txikiena ez dozu hartu. Edukazioz aldetik zu be...


—Ni zer?

—Txuletarik txikiena ez dozula hartu.

—Eta zeuk hartu bazendu lehenengo, zein hartuko zenuan, ba? Txikiena?

—Bai, ba! Jakina!

—Ba, hor daukazu. Hainbeste koplak!



## *Gose urteak*

1940. Parkatu, baina txarto irakurri dozu. Hori ez da “mil novecientos cuarenta” irakurten, “mila bederatzirehun eta berrogei” baino.

Gerrate ondoko urteak oso gogorrak izan ziran Bilbon, janaririk ezagaitik batez be.

Mutikotxo bat izan nintzan ni orduan. Baina ondo gogoratzen naz zelako gosea pasau neban eta, hori zala-ta, zelako lapurtxoia bihurtu nintzan.

Behin baten, Erriberako merkatuaren ondoan egoan kamioi batetik kereizak ostu genduzan nire lagun batek eta nik. Kereiza ederrak eta gozoak benetan! Gogoratzuz bakarrik be estomagua dantzan hasten jat.

Arineketan Santantoiko zubipera joan eta “zuk bat” eta “nik beste bat”, “zuk bi” eta “nik beste bi”, “zuk hiru” eta “nik beste hiru”... kereizak jan eta jan hasi ginan.

—Hazur eta guzti jaten dodaz nik —esan neutsan, halakoren baten, nire lagunari, jan beharren jan beharraz berbak eurak be mamurtuz.

—Hazurrik badauke ala? —erantzun eustan nire lagunak, zazpi kereiza batera ahora sartzen zituan bitartean.



## *Adan Aurpegi Adarraga*

Maiatzak 31.

Kotxez josita dago Deusto.

Azterketak Hizkuntza Eskola Ofizialean.

Ahoz ahozko azterketak. Euskera, frantses, ingles eta alemanezkoak.

Inurri pilo bat dirudi Hizkuntza Eskolak.

Jente asko. Gazteria batez be.

Neska eta mutil. Neskak batez be.

Gora eta behera, batera eta bestera, estu eta larri gehienak.

—Bolígrafo bat itxiko deustazu apur baten, mesedez!

—Euskerazko azterketak zein aulatan dira?

—Epa! Parkatu!

—Nortzuk dira aztertzaileak?

—Baina ikasgai hori be ikasi egin behar izan da ala?

—Zu, *baten* ala *bateren* da?

—*Baten, batean, batetan.*

—Baina zein dago ondo: *Gizon batean etxean, gizon batetan etxean* ala *gizon bateren etxean?*

—Hirurak txarto.

—Hirurak?

—Baina zelan daukazue erlojua zuek ba? Hamarrak dira.

—Komuna non dago mesedez?

—*Komuna* ala *arrunta* esan behar da?

—Niri dana ahaztu jat.

—Txotxolotu egin gara gu gaur.

—Edo txotxolatu.

—Hasi da euskerazko azterketa?

—Ni frantsesezkora noa.

—Badozu zigarro bat?

—Ez egizu edan zuririk azterketa aurretik!

—Gero arte!

Beterik dago beheko barra. Izerditan eta arduraz beterik Niko, barraren jabea, pintxoak hartu eta hartu eta edan eta edan egin ondoren, ordaindu barik inork alde egin ez dagian.

Beterik barra. Beterik komunak. Beterik hautsontziak. Beterik buruak: *kotxeren, kokoloren, astoren, mandoren, kaleko, etor naiteke, jakin badakit. Nafarroa bat eta bakarra bitan banatzen da, Mogel, Larramendi, Etxeberri, Etxahun, Kirikiño, Lauaxeta; vous n'êtes pas fatigué?, habiter, manger, déjeuner, rentrer, où, ici, là, y, à, dans, il va en revenir; shall, will, to wisch, he is full of anxiety to... underdeveloped, wem, was, Zustandspassiv, Suwanestrujenpisenwajen...*

Hango nahasteak eta arrapaladak ez dau azkenik.

Euskerazko azterketetan hiru irakasle dira aztertzaile: Urlija jauna, Sandia jauna eta Berendia jauna. Berendia da mahaiburuko.

Berendiaren lagun handi bat dago haren aurrean irribarrez, azterketa egiteko prest. Hogeta bost urte inguruko mutil bat da. Eta azterketa egitera sartu danean Berendiak Urliari belarrira esan deusanez, euskera asko dakien mutil zuhur adarjotzaile bat ei da, baina aginduta eginda baino alperragoa, egundo euskal deklinabidea agurtu ez dauena, azterketok egin baino lehen zerbait ikasteko Berendiak esan arren.

—Izen-abizenak, mesedez! —Sandiak.

—Bai. Adan Aurpegi Adarraga.

—Ederto! —Berendiak.

—Ia, idatzi: “*Eguzkitan sarri egon naiz, baina eguzkian inoiz be ez*” —Urliak.

—Eguzkitan larri egon naiz?

—*Larri ez, sarri* baino —Berendiak.

—Parkatu. Neu nago larri-ta... Badakizu.

—Lehenengo eta behin, aztertu daigun lehenengo hitza: *Eguzkitan*. Agertzen al da hor morfemarik? —Berendiak.

—Non?

—*Eguzkitan* —Sandiak.

—Ez dakit, ba. Egongo da, beharbada. *Eguzkitan morfemak...?* Gerizpetan be...

—Zer? —Urliak.

—Morfemak..., morfemak..., morfemak... Bueno baina ... Euskerazko hitza da hau? Zer esan gura dau?

—Goazen aurrera. Zein kasutan dago *eguzkitik*? —Berendiak irribarrez.

—Ez dot ulertzen.

—Abla..., abla... —Berendiak, bere lagunari lagundu gurarik.

—Erderaz erantzun behar da orain ala?



—Erderaz zergaitik? —Berendiak.

—*Habla, habla* esan dozu-ta.

—*Ablatiboan* esan nahi izan deutsu nire lagunak —Urliak.

—Lagundu gura izan arren be, alperrik izango dalakotan nago zurekin —Sandiak.

—Parkatu. Ez naz konturatu.

—*Zehaztugabea* edo *mugagabea* eta *zehaztua* edo *mugatua* eta, zer diranik ba al dakizu?

—Urliak.

—*Zehaztugabea* eta *zehaztua*? Ba zehatz egiten ez dan gauza bat, zehaztu barik egoten da, guztiz zehaztu barik behinik behin. Zehatz-zehatz egiten dan gauza bat, oster, zehaztuta. *Zehaztua* hori izango da, ezta? Nik, behintzat, holan entzun izan dot beti. Eta horrexegaitik, zehaztu barik dagoan gauza bati zehaztugabea esaten jako. Bueno, nik neuk, nire etxean, zehaztubakoa esaten dot esan, baina holan esanda be ulertzen da. Horrenbeste edozeinek daki. *Zehaztugabe* eta *zehaztu* kontu hori holan izango da, ezta? Egia da izan, batzuetan gauza bat zehaztu egin gura izaten da, baina, halan eta guzti be, guztiz zehaztu barik geratzen da, zehaztuteko eginahalak egin arren. Eta *mugagabe* eta *mugatu* kontu horretan be uste dot...

—Euskera asko eta ondo daki. Baina gramatkarik piperrik be ez. Ondo ikasteko esan neutsan nik baina... Alperrik! Alper handi bat da. Eta adarjotzaile bat. Bai. Hainbat aldiz jo deust adarra honek niri, baina neuk be joko deusat orain —Berendiak Urliari isil-isilik belarrira.

—Berbalapiko barritsu bat da zure lagun hau —Berendiari Sandiak belarrira.


—Asto batek baino gramatika gitxiago daki —Berendiari Urliak.

—Ibar jauna! —Berendiak atezain dagoan bedelari.

—Bai. Esan! —Ibar jaunak.

—*Euskal deklinabidea* liburua eta zaku bete lasto ekarri, mesedez —bere lagunari adarra joteko asmoz Berendiak.

—Eta niri eskupainu bat, mesedez, izerdia sikatzeko, eta Koka-Kola bat! —Adan Aurpegi Adarragak bedelari, Berendiari kinu maltzur bat eginez.



## *Koadru abstraktoak*

Pintura erakusketa bat dago *Margo* erakustetxean.

Kandido Txapuza pintorearen koadruak dira.

Koadru abstraktoak gehienak.

Hantxe dago Txapuza bera be, lagun talde bati bere koadruen esanahia azaltzen.

—Bai, jakina. Gu holako koadru abstraktoak ikusten ohitu barik gagoz, eta ez doguz ulertzen.

Ez jakuz atsegingarri be egiten —dino Txapuzak.

—Mesedez, Txapuza jauna! —esaten deutso andra batek.

—Mesederik gabe. Bai —Txapuzak harro-harro.

—Zer esan nahi dau koadru honek?

—Koadru horrek? Bai. Oraintxe esango deusut. Hara: Landa bat eta behi batzuk margotu gura izan nituan koadru hau egiterakoan.

—Baina hor ez da agiri bedarrik?

—Jakina ez dagoana bedarrik, behiek jan dabe-ta.

—Baina behirik be ez dot ikusten nik.

—Zelan ikusiko dozuz, ba, andra! Bedarrik ez dagoan lekuan ez da behirik egoten.



## *Gauza barriak eta onak*

- Zu, Iker! Hor Izaron emoten daben pelikula hori, zera...  
—“Mundu zoriontsu baten amesetan”?  
—Bai. Zer modutakoa da?  
—Ba! Tira!  
—Artista onak agertzen dira.  
—Bai. Egia da hori. Baina, halan eta guzti be...  
—Niri neuri, behintzat, asko gustau jatan.  
—Bueno! Neu be ez nintzan aspertu. Baina ez da beste munduko gauzarik.  
—Nire ustez baditu gauza barri batzuk be. Eta gauza on batzuk be bai.  
—Bai. Baina pelikula horrek dituan gauza barriak ez dira onak, eta dituan gauza onak ez dira barriak.



## *Txaloak jo beharra*

Zinera sarri. Baina butaketara gitxitan joaten nintzan ni gaztetxotan. Jeneralera beti, *oilategira* edo *zorritegira*, boltsan kakausak, gaztaina erreak, saladillak edo holako zeozer hartuta.

Inoiz-inoiz butaketara be joan nintzan, ni baino modu handiagoko beste norbaitegaz joanda. Eta *Gobernadore jauna* butaka baten goienean idatzirik ikusi be egin neban, zine baten baino gehiagotan. Zine guztietan egoten ei zan aparteko butaka bat gobernadorearentzat.

Aldi haretan, Franco izan zanaren diktadurapean, Bilboko gobernadorerik zinera joaten zan ala ez, hori ez dakit.

Dana dala, egun baten, bat behinik behin, joan ei zan.

Gobernadore onen bat zan antza. Oso ona, esaten ebenetik. Burukomin handia emoten ei eutsan gizarte arazoak, eta horren arduratan egoten ei zan beti. Lantegietara bertara be sarritan joaten ei zan langileak ikustera, hareekaz berba egitera, hareei hitzaldiak emotera.



—Herriak aintzat eta ontzat hartzen nauala dirudi, ezta? —galdetzen eutsen, behin eta barriro, bere zerbitzari “leialei”.

—Bai. Oso pozik. Dударik gabe. Oso pozik dago herria berorregaz. Ez dala inoiz be berori lakorik egon hemen esaten dabe. Oso pozik dagoz danak. Oso pozik, bai —erantzuten eutsen beti hareek.

Halan eta guzti be, duda-mudatan egoten zan. Eta berak beratarra jakin nahi eban norainoko heltzen zan bere herritartasuna. Berak beratarra eta herriaren beraren ahotik entzun gura eban bere agintaritzari buruzko eretxia.

Horrexegaitik, egun baten, inori ezer esan barik, surpean guzurrezko bigote handi bat jarri, betaurreko baltz batzuk ipini, langileek erabilten zituen antzeko fraka, jertsei eta alkondara bat jantzi, fumetako papera, posporoak eta koarteroi bat erosi, eta hor doa “gure gobernadoreori” kalerik kale eta tabernarik taberna, jente artera, herritarrekin egotera.

Batera eta bestera, ibili eta ibili egin ondoren, nekatu egin zan eta zine batera sartu.

Baekian han aparteko butaka bat egoana beretzat. Baekian sarrera-txartel barik sartu eitekeana. Baina, beste edozein bezala, kolan egon eta gero sartu zan.

Akomodadoreari pezeta bat emon eutsan erdi ilunetan. Behera jausi zala uste eban dirua, baina akomodadoreak “eskerrik asko” esan eutsanean konturatu zan bere lekura jausi zala, akomodadorearen “eskuko kazura”.

Baztertxo baten jarri zan.

Beterik egoan zinea. NODO ikusten orduantxe. Eta, bat-batean, non agertzen dan gobernadorea bera NODOan, langile talde handi bati hitzaldi gartsu bat egiten.


Txaloka hasi ziran berehalaxe zinean egozan guztiak. Gobernadorea bera ez, jakina. Baina saltuka hasi jakon bihotza bere herritartasuna bere begi eta belarriz ikusi eta entzunik. Eztitan egoan.

Halakoren baten, alboan eukan gizonak ukondoaz jo eban.

—Zer? —galdetu eutsan gobernadoreak.

—Zergaitik zagoz txalorik jo barik? Kartzelara joatea nahi dozu ala?





## *Kotxe barria*

- Kotxe barria?
- Bai.
- Noiz erosi dozu?
- Atzo. Gustatzen jatzu?
- Asko.
- Kolorea be bai?
- Bai. Polita da.
- Handiegia be ez da.
- Ez. Baina eroso, nasaia...
- Eta merkea eta bizkorra.

- Egokiagorik aurkitzeko be...
- Aproposa Bilborako.
- Benetan!
- Edozein lekutan aparkatzeko modukoa...
- Haize egokitua be badauka ala?
- Bai, gizona!
- Holangorik...!
- Behar be bai haize egokitua Bilboko kutsadura artean ibilteko. Gainera...
- Zu! Baina hau zulo hau zertarako dauka hemen, ba?
- A! Hori multen buzoia da.



## *Hitz jokoen indarra*

Terrazadun bar gitxi dago orain Bilbon. Baina *Edangu* barrak badauka oraindino. Eta egokia eta txukuna euki be.

Lehenagoko zaldunen antzeko gizon bat jarri da gurdi-burpilez egindako mahaietariko baten.

Besartean ekarri dauen *Goitibera* aldizkaria be mahai gainean itxi dau. *Dotorea* zigarro pake-  
te bat atera, eta zigarro bat biztu dau. Eta *Goitibera* hartu, eta irakurten hasten da.

Kamareru bat joako berehalaxe ondora.

—Arratsaldeon, jauna!

—Baita zuri be.

—Egun ederra, e?

—Bai, benetan!

—Zer hartuko dozu?

—Patxaran kopatxu bat.

—Ederto.

Badoa kamarerua. Badoa jentea kanporantz *Edangutik*. Badator jentea kanpotik *Edangura*.

Badator kamarerua be patxaranagaz.

—Zu! Parkatu baina... Nahiago neuke beste zerbait edatea. Patxarana edaten izan dot beti. Eta horrexegaitik eskatu deusut... Baina bihotzerrea egin deust egunotan. Honen ordezt whisky bat ekarriko zeunke? Badakit hau ondo ez dagoana...

—Hau baino oker handiagorik euki ezik, ondo goaz. Oraintxe ekarriko deusut whiskya.

—Parkatu, e?

—Parkatuta dago.

Esan eta egin, patxarana eroan, eta behingo baten dator kamarerua wiskeyagaz.

—Izotz apur bat?

—Bai, bota.

—Bat?

—Pare bat. Eskerrik asko.

Noizik behin wiskey tragotxo bat eginez, egotaldia egin dau irakurten gizonak.

Halakoren baten, wiskeya amaitu, eta alde egitera doa, ezer ordaindu barik. Baina han dago kamarerua zuhur, eta ondoan plantatzen jako.

—Parkatu, jauna. Ahaztu egin jatzu edan dozun wiskey hori ordaintzea.

—Ahaztu ez. Patxaranaren ordezt atera deustazu wiskey hori-ta...

—Bai. Baina patxarana be ez doz ordaindu.

—Zer dala-ta ordainduko neban, ba, edan ezik?



## *Odolosteak ordeaz*

UEFAn finalista gelditu da Athletic.

Datorren domekan Milan dator San Mamesera.

Gainezka egongo da *katedrala*.

Hara eta hona, estu eta larri, sarrera-txartel bila forfoak.

Txomin Zeken be hor dabil, partidu horretara joateko ustetan. Baina, jakina, inoren kontura.

—Hi, Eukeni! Laguntasun beharrean naiagok, ba!

—Handia dok!

—Ez haz hi nire laguna, ala?

—Bai.

—Ba laguna besteari laguntzeko dok.




—Baina hi beti haz *bestea*.

—Bueno, bueno, Eukeni! *Atletin* lan egiten doken ezkeru, sarrera txartel pare bat erregalauko deustazak, eztok, datorren domekako partidurako?

—Eta hik, *Aprobetxategi*, Berdetegi bankuan lan egiten doken ezkeru, *berde*<sup>3</sup> pare bat erregalauko deustazak, eztok?

---

<sup>3</sup> Berdeak mila pezetako billeteak ziran.




## *Berbako gizon zintzoa*

—Emongo neuskizuz, bai. Gustora emon be hogei mila pezeta. Gero atzera emotekotan, pozik emongo neuskizuz. Baina ze segurantza daukat horretarako?

—Gizon zintzo baten berbea.

—Bueno! Konforme. Ekarri egidazu, ba, lehenengo gizon zintzo hori, eta gero emongo deustudaz hogei mila pezetok.



## *Gitarrista barri bat*

Gitarrazko kontzertu bat entzuten nago Arriagan.

Gitarrista barri baten aurkezpena da. Txerran Lakarrarena.

*Aldi* egunkarian musikako kritikak egiten dituan Koldo Intxauspe dago nire aurrean. Berak ekarri ei dau gitarrista gazte hori.

Urtzi Errauskin, gitarrista ospetsua, dauka Intxauspek bere ondoan.

Txerran Lakarra gitarra joten ari da. Izerditan.

—Zer deritxazu? —Intxauspek Errauskini, isil-isilik belarrira berba eginda.

—Iribarren antzera joten dauela horrek gitarra —Errauskinek irribarrez.

—Baina Iribar ez da gitarrista.

—Hori be ez.



## *Aingeruak legez*

Gabonzahar gaua.

Zirritoki dantzalekuan.

Bazter guztiak argi koloretsuz, musikaz, txanpaneaz, jentez beterik.


Dantzan dabilta lagunik gehienak.

Mari Txori eta Joaniko Boldro be bai.

—Zuk aingeruak legez egiten dozu dantzan —Mari Txorik.

—Baina aingeruak badakie dantzan ala? —Joaniko Boldrok.

—Horrexegaitik, ba!



## *Zahartzaroko bakartadea*

Iturribide kalean. 53an. Patio baten. Emakume bi. Erropak eskegiten, eta leihotik leihorako alkarrizketa gozatsuan.

—Beste beheko atsoau be orain...

—Nor?

—Katalin. Hirugarreneko alarguna.

—Bai. Zer?

—Ezkondu jakoz alaba biak eta, nora joango ete da orain bizitera?

—Oraingoz inora be ez. Koitadatxoa! Pena emoten deust.

—Zer, ba? Gaixorik edo holan dago ala?

—Ez, ez. Bai zera! Ez da horregaitik. Lehengoan egon nintzan beragaz luzaro berbetan, eta berton gelditu behar izango dauela uste dot.



—Bai? Zergaitik?

—Ba, badakizu. Suhinak Eibarkoa eta Balmasedakoa dira, eta hara ezkondu jakoz alabak.

—Bai. Eta?

—Horrexegaitik sortu jakola nahigabea.

—Eibarrera ala Balmasedara, nora joan ez dakialarik dagoalako?

—Ez, ez. Katalin bera, badakizu, on bat da eta, prest dago batera zein bestera joateko. Bera konforme dago. Baina suhinak dabilta eztabaidaka. Batak bere amaginarreba Balmasedara joan daitela nahi dau, eta besteak Eibarrera.

—Asko maite dabe orduan suhinok amaginarreba.

—Maite? Bai zera! Eibarkoak Balmasedara joan daitela gura dau, eta Balmasedakoak Eibarrera.



## *Egia hutsa!*

Atzo goizean hil zan Santi Nonzebarri.

Bilbo Zaharreko txikiterorik zaharrenetarikoa eta guzurtirik handienetarikoa.

Txikiteroen albistaria izan da Santi Nonzebarri.

—Badakizue zer jazo dan Donostian? Itzela izan da! Ez dakigu zer ikusteko gagozan, gazteak! Eguerdian esan dau telebisinoak. Arratsaldeko egunkariak be badakarre. Irratiek be esango eben. Ba egia santua esanda, guzurrik esan barik...

“Egia santua esanda, guzurrik esan barik”, hauxe izan da Nonzebarriren betiko esakera. Baina egia esatea gura izan arren, guzorra esan behar beti. Gaixoa euki dau horretan. Baina inori kalterik egiten izan ez deutsan gaixoa, oso ondo ezagutzen izan dogulako guztiok.

Eskuaz oratuteko moduko guzur biribilak botaten izan ditu. Guzur biribil barregarriak. Eta Nonzebarrik hamalau esaten izan dauenean, guztiok jakin dogu lau dirana. Gripe esaten izan

dauenean, eztul edo doministikuren bat izango zana. Athletic bat eta bapez doala irabazten entzun dauela esaten izan dauenean, lau eta hiru galtzen doala ulertu behar..., eta abar, eta abar, surtan berehalaxe erreteko moduko abarrak gehienak.

Hamaika barre egin izan da Bilbo zaharrean Nonzebarriren guzurrak zirala eta ez zirala! Guzurra eta abarra haxe izan da benetan gizon zelebrea! Guzur hutsa!

Atzo goizean hil zan gizajoa. Txikiteroak penaz beterik dagoz. Nahigabez eta luturik.

Luturik dago Nonzebarri bera be. Hain zuzen, baltzik jantzita dago hil-kutxan, Somerako bere etxeko gelan. Santu bat dirudi. Bakarne, Nonzebarriren emaztea, inork baino hobeto Santi eza-gutzen izan dauen emazte alarguna, haren gorpuaren ondoan dago, erdi negarrez.

—Danok daukaguz geure zertxoak baina, oso ona izan da, Bakarne, zure gizona. Gizajoa! Jainkoak zeruetan euki dagiala betiko tabernako pozetan! —Nonzebarriren adiskide batek.

—Egia hutsa da gizajo hau! —Bakarnek.

—Zer egingo dogu, ba! Gauza bi doguz derrigorrezkoak mundu honetan: hil artean bizitea eta hiltea. Holantxe da gure mundua-ta. Gure Santi! Majoagorik eta lagun hobeagorik! Sinistu be ezin dot egin egia danik —beste adiskide batek.


—Egia hutsa da gizajo hau! —Bakarnek.

—Hamaika koplataldi egin dogu batera baina, igarri barik joan jaku gure albistaria, gure albistari barregarria. Lehengo astean oraindino batera egon ginan —hirugarren adiskide batek.

—Egia hutsa da gizajo hau! —Bakarnek, etengabeko letania bardintsu baten antzera.

—Egia hutsa, Bakarne... Ez neuke nik hainbeste esango. Ez dot esan gura txarragoa izan danik horregaitik. Baina, Bakarne, beste askoren antzera, honek be noizik behin guzurren bat edo beste esaten izan dau... —hirugarren adiskide berak Bakarneren letaniaz pizka bat asperturik.

—Guzurren bat edo beste? Zu be beronen antzekoa zara ala? Guzurra baino besterik ez dau esan, gizajo honek, beronen bizitza guztian. Guzur hutsa izan da. Eta horrexegaitik dinot egia hutsa dala orain, egia guztiak aldean ditualako.



Liburu hau  
2008ko maiatzaren 30ean,  
Jesusen Bihotzaren egunean,  
argitaratua izan da,  
Labayru Ikastegiaren Boluetako  
egoitzaren inauguratzea dala-ta.



## ESKOLAN LANTZEKO sorta

1. *Katuen Testamentua. Umeen kantu eta jolasak* (KDa, kasetta eta liburua)

ASKOREN ARTEAN

Euskal Herriaren mendebaldeko kantutegi tradizionalako ume-kantuen bilduma eta irakaskuntzarako materiala (Ikastolen Elkartearekin koedizioa).

2. *Hamaika abere-ipuina. Bizkaiko herri-alegiak*

ASKOREN ARTEAN

Herri-alegien sortatxoa eta eskolan lantzeko materialak (Ikastolen Elkartearekin koedizioa).

3. *Ipuinen tailerra*

SEVE CALLEJA-ANTTON IRUSTA

Irakurzaletasuna suspertzeko metodologia eta ariketa praktikoak, ikasle eta irakasleentzat.

4. *Bat eta bi, hiru eta lau*

IDOIA ALZIBAR

Herri-kantuak irakasteko eta eskola-saioretan erabiltzeko ikas materiala.

5. *Ipuin antzeko alegi mingotsak*

MIKEL ZARATE

Unidade didaktikoa: Idoia Alzibar

Alegia generoaren bitartez, euskal gizarte eta kulturako gaiak modu eder eta atseginean erakutsita.

6. *Mixeri eta Mau. Ume kantuak eta jolasak*

IDOIA ALZIBAR

Ume txikitxukaz jolasteko kantu-errezitaduak, egoera bakotxari egokituta. Liburua-gaz batera DVDa dator, jolasak eta kantuak modu praktikoan erakusteko.

7. *Bilbo irribarrez*

MIKEL ZARATE

Bilbon girotutako ipuin barre-eragileak. Testu labur-errazak, bilbotar euskaldunen tasun eta keriakaz jantzita.



LABAYRU IKASTEGIA



**Bilbao**

UDALA  
AYUNTAMIENTO

**bbk=**

ISBN: 978-84-86833-24-4



9 788486 833244